



# **ORDENANTZA**

# **FISKALAK**

**2023**



- AURKIBIDEA -

<b>1</b>	<b>Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga-Ordenantza</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles	<b>1</b>
<b>2</b>	<b>Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana	<b>15</b>
<b>3</b>	<b>Eraikuntza, Instalazio eta Obrei dagokien Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras	<b>34</b>
<b>4</b>	<b>Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica	<b>44</b>
<b>5</b>	<b>Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas	<b>54</b>
<b>6</b>	<b>Administrazio-dokumentuak tramitatzeagatik eta administrazio-jarduerak egiteagatik kobratzen den Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Expedición de Documentos Administrativos y Realización de Actividades Administrativas.	<b>78</b>
<b>7</b>	<b>Autotaxi eta gainerako auto alokatuen lizentziagatik kobratzen den Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Licencias de Autotaxis y demás Vehículos de Alquiler	<b>82</b>
<b>8</b>	<b>Hirigintzako espedienteak tramitatzeagatik kobratzen den Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Tramitación de Expedientes en Materia Urbanística	<b>84</b>
<b>9</b>	<b>Jarduerak eta instalazioak eta lokalak zabaltzeko eta jartzeko eskaintzen diren zerbitzuengaitik ordaindu beharreko Tasak arautzen dituan Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por Prestación de Servicios por Actividades e Instalaciones y Apertura y Establecimiento de Locales.	<b>90</b>
<b>10</b>	<b>Udal hilerriaren Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa de Cementerio Municipal	<b>96</b>
<b>11</b>	<b>Estolderiaren Tasea arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa de Alcantarillado	<b>100</b>



12	<b>Zaborrak eta hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta iraitzeagatik kobratzen den Tasa araupetzen duen Zerga Ordenantza</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Recogida, Tratamiento y Eliminación de Basuras y Residuos Sólidos Urbanos	103
13	<b>Ibilgailuak immobilizatu, kaleetatik edo errepideetatik kendu eta udal-biltegiara eramateari dagokion tasa arautzen duen ordenantza fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Prestación del Servicio de Inmovilización, Retirada de vehículos de las vías urbanas y Traslado de los mismos al depósito municipal	109
14	<b>Ganadu-azokan jarduerak egin eta zerbitzuak emateagatik kobratzen diren Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasas por Prestación de Servicios y Realización de Actividades en el Ferial de Ganado	113
15	<b>Kontrolik gabeko abereak biltzeko zerbitzu publikoa emateagatik kobratzen diren Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasas por la Prestación del Servicio Público de Recogida Pública de Recogida de Ganado Incontrolado	116
16	<b>Udalarenak diren jabetza publikoen erabilera pribatua eta aprobetxamendu bereziari dagozkion asak araupetzen dituen Ordenantza Fiskala.</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasas por la Utilización Privativa o el Aprovechamiento Especial del Dominio Público Municipal	120
17	<b>Lurraren, azpilurraren eta lurretik gorako guneen erabilera pribatibo eta aprobetxamendu bereziko Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala (hornikuntza zerbitzu enpresa ustiatzaileentzat)</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasa por Utilización Privativa o Aprovechamiento Especial del Suelo, Subsuelo o Vuelo de la vías Públicas municipales, a favor de empresas explotadoras de servicios de suministro.	134
18	<b>Torrebillela Kultur etxean ezkontza zibilak egiteko zerbitzua eskaintzeagatik ordaintzen den Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por Prestación del Servicio de Celebración de Bodas Civiles en Torrebillela Kultur Etxea	138
19	<b>Bidaiariei noizean behineko garraioa eskaintzearen kobratzen diren Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza.</b> Ordenanza Reguladora de los Precios Públicos por la Prestación del Servicio de transporte ocasional de viajeros.	140
20	<b>Etxeko animaliak batzeko, jagoteko eta kontrolatzeko zerbitzuaren Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por la Prestación del Servicio de recogida, custodia y control de animales domésticos.	142



21	<b>Hiri-garraio kolektiborako zerbitzuaren tasa arautuko duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por la Prestación del Servicio de Transporte Colectivo Urbano.	146
22	<b>Kirol Zerbitzuak erabilteagaitik kobratzen diran Tasak arautzen dituan Ordenantza</b> Ordenanza Reguladora de las Tasas por la utilización de los Servicios Deportivos.	148
23	<b>Kultur Zerbitzuak erabilteagaitik kobratzen diran Prezio Publikoak arautzen dituan Ordenantza</b> Ordenanza Reguladora de los Precios Públicos por la utilización de los Servicios Culturales.	158
24	<b>Uriguen Hartzaindegian zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagaitik kobratzen diren Prezio Publikoak araupetzen dituen Ordenantza</b> Ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades en Uriguen Hartzaindegia.	173
25	<b>Kontribuzio Berezien Ordenantza Orokorra</b> Ordenanza Fiscal General de Contribuciones Especiales	176
26	<b>Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskatzailtzako Ordenantza Fiskal Orokorra</b> Ordenanza Fiscal General de Gestión, Recaudación e Inspección	184



	B.O.B. INICIAL	B.O.B ULTIMA MODIF.
<b>Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga-Ordenantza</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles	12.08.16	28.12.22
<b>Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana	Anexo 29.11.89	31.12.21
<b>Eraikuntza, Instalazio eta Obrei dagokien Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras	Anexo 29.11.89	28.12.22
<b>Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica	Anexo 29.11.89	28.12.22
<b>Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas	Anexo 10.02.92	07.02.22
<b>Administrazio-dokumentuak tramitatzeagatik eta administrazio-jarduerak egiteagatik kobratzen den Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Expedición de Documentos Administrativos y Realización de Actividades Administrativas.	Anexo 29.11.89	31.12.21
<b>Autotaxi eta gainerako auto alokatuen lizentziagatik kobratzen den Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Licencias de Autotaxis y demás Vehículos de Alquiler	Anexo 29.11.89	24.12.19
<b>Hirigintzako espedienteak tramitatzeagatik kobratzen den Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Tramitación de Expedientes en Materia Urbanística	Anexo 29.11.89	24.12.19
<b>Jarduerak eta instalazioak eta lokalak zabaltzeko eta jartzeko eskaintzen diran zerbitzuengaitik ordaindu beharreko Tasak arautzen dituan Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por Prestación de Servicios por Actividades e Instalaciones y Apertura y Establecimiento de Locales.	28.12.12	24.12.19
<b>Udal hilerriaren Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa de Cementerio Municipal	Anexo 29.11.89	28.12.22



<b>Estolderiaren Tasea arautzen dauen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa de Alcantarillado	Anexo 29.11.89	24.12.19
<b>Zaborrak eta hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta irazteagatik kobratzen den Tasa araupetzen duen Zerga Ordenantza</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Recogida, Tratamiento y Eliminación de Basuras y Residuos Sólidos Urbanos	Anexo 29.11.89	28.12.22
<b>Ibilgailuak inmovilizatu, kaleetatik edo errepideetatik kendu eta udal-biltegiara eramateari dagokion tasa arautzen duen ordenantza fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por Prestación del Servicio de Inmovilización, Retirada de vehículos de las vías urbanas y Traslado de los mismos al depósito municipal	18.12.97	24.12.19
<b>Ganadu-azokan jarduerak egin eta zerbitzuak emateagatik kobratzen diren Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasas por Prestación de Servicios y Realización de Actividades en el Ferial de Ganado	10.11.98	24.12.19
<b>Kontrolik gabeko abereak biltzeko zerbitzu publikoa emateagatik kobratzen diren Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasas por la Prestación del Servicio Público de Recogida Pública de Recogida de Ganado Incontrolado	Anexo 30.12.00	24.12.19
<b>Udalarenak diren jabetza publikoen erabilera pribatua eta aprobetxamendu bereziari dagozkion Tasak araupetzen dituen Ordenantza Fiskala.</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasas por la Utilización Privativa o el Aprovechamiento Especial del Dominio Público Municipal	10.11.98	31.12.21
<b>Lurraren, azpilurraren eta lurretik gorako guneen erabilera pribatibo eta aprobetxamendu berezirako Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala (hornikuntza zerbitzu enpresa ustiatzaileentzat)</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de Tasa por Utilización Privativa o Aprovechamiento Especial del Suelo, Subsuelo o Vuelo de la vías Públicas municipales, a favor de empresas explotadoras de servicios de suministro.	31.12.03 Anexo D	31.12.03 Anexo D
<b>Torrebillera Kultur etxean ezkontza zibilak egiteko zerbitzua eskaintzeagatik ordaintzen den Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por Prestación del Servicio de Celebración de Bodas Civiles en Torrebillera Kultur Etxea	10.09.02	24.12.19
<b>Bidaiariei noizean behineko garraioa eskaintzearen kobratzen diren Prezio Publikoak arautzen dituen</b>	08.05.09	08.05.09



<b>Ordenantza.</b> Ordenanza Reguladora de los Precios Públicos por la Prestación del Servicio de transporte ocasional de viajeros.		
<b>Etxeko animaliak batzeko, jagoteko eta kontrolatzeko zerbitzuaren Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por la Prestación del Servicio de recogida, custodia y control de animales domésticos.	24.09.09	24.12.19
<b>Hiri-garraio kolektiborako zerbitzuaren tasa arautuko duen Ordenantza Fiskala</b> Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por la Prestación del Servicio de Transporte Colectivo Urbano.	31.12.10	19.12.11
<b>Kirol zerbitzuak erabilteagaitik kobratzen diran prezio publikoak arautzen dituan testua.</b> Texto regulador de los precios públicos por la utilización de los servicios deportivos.	30.09.22	09.12.22
<b>Kultur Zerbitzuak erabilteagaitik kobratzen diran prezio publikoak arautzen dituan Ordenantza</b> Ordenanza Reguladora de los precios públicos por la utilización de los Servicios Culturales.	14.08.98	09.12.22
<b>Urigen Hartzaindegian zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagaitik kobratzen diren Prezio Publikoak araupetzen dituen Ordenantza</b> Ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades en Urigen Hartzaindegia.	31.12.18	06.11.19
<b>Kontribuzio Berezien Ordenantza Orokorra</b> Ordenanza Fiscal General de Contribuciones Especiales	16.12.11	16.12.11
<b>Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskatzailtzako Ordenantza Fiskal Orokorra</b> Ordenanza Fiscal General de Gestión, Recaudación e Inspección	Anexo 29.11.89	31.12.21



## **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA-ORDENANTZA**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua**

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan eta Ondasun Higiezin gaineke Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorrita, Udal honek zerga hau eskatzen du Ordenantza honen arabera.

#### **2. artikulua**

1. Ordenantza udal-mugarte osoan ezarriko da.

2. Higiezin bera zenbait udal-mugartetan kokatuta egonez gero, udal-mugarte bakoitzean daukan azalera kontuan hartuko da zerga honen ondorioetarako.

### **II. ZERGA-EGITATEA ETA ZEGAREN MENDE EZ DAUDENAK**

#### **3. artikulua**

1. Ondasun Higiezin gaineke Zerga izaera errealeko zerga zuzena da, eta udal-mugartean dauden landa-ondasun higiezinak, hiri-ondasun higiezinak eta ondasun higiezin berezien balioa kargatzen du, haien zerga-egitatea ondasun horien gaineke eskubide hauen titulartasuna denean:

a) Ondasun higiezin edo haiek afektatuta dauden zerbitzu publikoen gaineke administrazio-emakida.

b) Azalera-eskubide erreala.

c) Gozamen-eskubide erreala.

d) Jabetza-eskubidea.

2. Aurreko zenbakian definitutako zerga-egitateetako bat gertatuz gero, bertan ezartzen den hurrenkeran, kasuan kasuko landa- edo hiri-ondasun higiezina ez da egongo zenbaki horretako gainerako modalitateen kargapean.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezin kasuan ere hurrenkera horixe aplikatuko da, higiezinaren gaineke emakida-eskubideek higiezinaren luze-zabala agortzen ez duten kasuan izan ezik; izan ere, kasu horretan, zerga-egitatea sortuko da baita emakidari afektatuta ez dagoen higiezinaren zatiaren gaineke jabetza-eskubideagatik ere.

3. Zerga honen ondoretarako, Higiezin Foru Katastroa arautzen duen 3/2006 Foru Arauan

## **ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES**

### **I. DISPOSICIONES GENERALES**

#### **Artículo 1.-**

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales y en la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, exige este tributo con arreglo a la presente Ordenanza.

#### **Artículo 2.-**

1.- La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

2.- En caso de que un mismo inmueble se encuentre localizado en distintos términos municipales se entenderá, a efectos de este impuesto, que pertenece a cada uno de ellos por la superficie que ocupe en el respectivo término municipal.

### **II. HECHO IMPONIBLE Y SUPUESTOS DE NO SUJECIÓN**

#### **Artículo 3.-**

1. El Impuesto sobre Bienes Inmuebles es un tributo directo de carácter real que grava el valor de los bienes inmuebles de naturaleza rústica, urbana y bienes inmuebles de características especiales sitios en el término municipal cuyo hecho imponible lo constituye la titularidad de los siguientes derechos sobre los citados bienes:

a) De una concesión administrativa sobre los propios inmuebles o sobre los servicios públicos a que se hallen afectos.

b) De un derecho real de superficie.

c) De un derecho real de usufructo.

d) Del derecho de propiedad.

2. La realización del hecho imponible que corresponda de entre los definidos en el apartado anterior, por el orden en él establecido, determinará la no sujeción del inmueble urbano o rústico a las restantes modalidades en el mismo previstas.

En los inmuebles de características especiales se aplicará esta misma prelación, salvo cuando los derechos de concesión que puedan recaer sobre el inmueble no agoten su extensión superficial, supuesto en el que también se realizará el hecho imponible por el derecho de propiedad sobre la parte del inmueble no afectada por una concesión.

3. A los efectos de este impuesto tendrán la consideración de bienes inmuebles rústicos, urbanos y de características





hala deskribatzen direnak hartuko dira hiri- eta landa-ondasun higiezinak zein ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

4. Honako hauek ez daude zerga honen menpe:

a) Errepideak, bideak, gainerako lurreko bideak nahiz itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunak zein jabari publiko hidraulikoko ondasunak, baldin eta erabiltzaileentzat aprobetxamendu publiko eta doakoa badute.

b) Udalen jabetzako ondasun higiezin hauek, udalerrian bertan kokatuta badaude:

- Erabilera publikoari atxikitako jabari publikoko ondasunak.

- Udalak berak zuzenean kudeatzen duen zerbitzu publiko bati atxikitako jabari publikokoak, hirugarren bati kontraprestazio bidez lagatako higiezinak direnean izan ezik.

- Ondare-ondasunak, hirugarren bati kontraprestazio bidez lagatako higiezinak direnean izan ezik.

### III. SALBUESPENAK

#### 4. artikulua

1. Erregukoak ez diren derrigorrezko salbuespenak.

Honako ondasun hauek egongo dira salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Lurralde Historikoaren edo bertako toki-erakundearen jabetzakoak direnak, baldin eta zuzen-zuzenean afektatuta badaude nazio-defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza zein espetxe-zerbitzuei.

b) Auzo-ondasunak eta amankomuneko auzo-mendiak.

c) Erregelamenduz ezarritako hazkunde moteleko espezieekin landatutako mendien azalera, baldin eta haien aprobetxamendu nagusia egurra edo kortxo bada, betiere arbolen dentsitatea espezie bakoitzaren kasuan berezkoa edo normala dena bada.

Basoen administrazioak onartutako antolamendu-proiektuen edo plan teknikoaren arabeko baso-berritzeak edo zuhaitzien berritzeak egiten diren mendien azalera. Salbuespen honek hamabost urte iraungo du, salbuespenerako eskabidea egiten den zergaldiaren hurrengotik zenbaturik, betiere hazkunde arineko espezieak ez badira.

d) Eliza Katolikoaren higiezinak, Espainiako Estatuak eta Egoitza Santuak 1979ko

especiales los definidos como tales en la Norma Foral 3/2016 reguladora del Catastro Inmobiliario Foral.

4. No están sujetos a este impuesto:

a) Las carreteras, los caminos, las demás vías terrestres y los bienes de dominio público marítimo-terrestre e hidráulico, siempre que sean de aprovechamiento público y gratuito para las personas usuarias.

b) Los siguientes bienes inmuebles propiedad de los municipios en que estén enclavados:

- Los de dominio público afectos a uso público.

- Los de dominio público afectos a un servicio público gestionado directamente por el ayuntamiento, excepto cuando se trate de inmuebles cedidos a una tercera persona mediante contraprestación.

- Los bienes patrimoniales, exceptuados igualmente los cedidos a una tercera persona mediante contraprestación.

### III- EXENCIONES

#### Artículo 4.-

1.- Exenciones obligatorias de carácter no rogado.

Gozarán de exención los siguientes bienes:

a) Los que sean propiedad del Estado, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, del Territorio Histórico de Bizkaia o de las entidades locales y estén directamente afectos a la defensa nacional, la seguridad ciudadana y a los servicios educativos y penitenciarios.

b) Los bienes comunales y los montes vecinales en mano común.

c) La superficie de los montes poblados con especies de crecimiento lento reglamentariamente determinadas, cuyo principal aprovechamiento sea la madera o el corcho, siempre que la densidad del arbolado sea la propia o normal de la especie de que se trate.

Asimismo, la superficie de los montes en que se realicen repoblaciones forestales o regeneración de masas arboladas sujetas a proyectos de ordenación o planes técnicos aprobados por la Administración forestal. Esta exención tendrá una duración de quince años, contados a partir del período impositivo siguiente a aquel en que se realice su solicitud, siempre que no se trate de especies de crecimiento rápido.

d) Los de la Iglesia Católica, en los términos previstos en el Acuerdo entre el Estado Español y la Santa Sede sobre



urtarrilaren 3an sinatutako Gai Ekonomikoei buruzko Akordioan ezarritakoaren arabera.

e) Elkarte konfesional ez-katolikoek higiezinak, baldin eta elkarrekin legez aintzatetsita badaude, Estatuak halako elkarrekin sinatutako lankidetzak-akordioetan ezarritakoaren arabera -akordio horiek Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan aipaturikoak dira-.

f) Espainiako Gurutze Gorriaren higiezinak eta erregelamenduz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.

g) Euskal Herriko Unibertsitatearen higiezinak.

h) Atzerriko gobernuen higiezinak, haien ordezkari diplomatikoen edo kontsulatuak edo haien erakunde ofizialek erabiltzeko direnean, baldin eta elkarrekotasuna badago edo egoera hori indarrean dauden nazioarteko hitzarmenekin bat badator.

i) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenak direla bide salbuespena aplikatu behar zaien organismo edo erakundearen higiezinak.

j) Trenbideek atzemandako lurak eta lur horietan dauden eraikinak, baldin eta geltokiak edo biltegiak badira edo lineak ustiatzeko ezinbestekoa den zerbitzuren baterako behar badira. Honenbestez, ez daude salbuespen ostalaritzako, ikuskizunetako, merkataritzako eta aisialdirako establezimenduak, ez eta enpleguak bizitzeko diren etxeak, zuzendaritza-bulegoak eta fabrika-instalazioak ere.

k) Udalei kontraprestaziorik gabe lagatutako ondasun higiezinak, ondasunok dauden udalei lagatutakoak badira

l) Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko errepideak, bideak eta gainerako lehorreko bideak, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak berak edo haren mendeko erakunde batek zuzenean kudeatzen edo ustiatzen baditu, betiere BFAk partaidetza handiena duena, bai eta kudeaketa edo ustiapen horri lotutako higiezinak ere.

## 2. Derrigorrezko erregu-salbuespenak.

Halaber, aurretik hala eskatuta, salbuespen egongo dira hauek:

a) Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikuluen 2. apartatuaren a) letran aipatzen diren monumentu izaeradun

Asuntos Económicos, de 3 de enero de 1979.

e) Los de las asociaciones confesionales no católicas legalmente reconocidas, en los términos establecidos en los respectivos acuerdos de cooperación suscritos a que se refiere el artículo 16 de la Constitución.

f) Los de la Cruz Roja Española y otras entidades asimilables que reglamentariamente se determinen.

g) Los de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.

h) Los de los Gobiernos extranjeros destinados a su representación diplomática, consular, o a sus organismos oficiales, a condición de reciprocidad o conforme a los Convenios Internacionales en vigor.

i) Los de aquellos organismos o entidades a los que sea de aplicación la exención en virtud de Convenios Internacionales en vigor.

j) Los terrenos ocupados por las líneas de ferrocarriles y los edificios enclavados en los mismos terrenos, que estén dedicados a estaciones, almacenes o a cualquier otro servicio indispensable para la explotación de dichas líneas. No están exentos, por consiguiente, los establecimientos de hostelería, espectáculos, comerciales y de esparcimiento, las casas destinadas a viviendas de los y las empleadas, las oficinas de la dirección ni las instalaciones fabriles.

k) Los bienes inmuebles cedidos sin contraprestación a los ayuntamientos, en los que estén enclavados.

l) Las carreteras, los caminos y las demás vías terrestres titularidad de la Diputación Foral de Bizkaia, siempre que sean directamente gestionadas o explotadas por la propia Diputación Foral de Bizkaia o por una entidad en la que la Diputación Foral de Bizkaia ostente una participación mayoritaria, así como los inmuebles afectos a dicha gestión o explotación.

## 2. Exenciones obligatorias de carácter rogado.

Previa solicitud, estarán exentos los siguientes bienes:

a) Los bienes inmuebles que tengan la condición de monumento a que se refiere la letra a) del apartado 2 del artículo 9 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio



ondasun higiezinak. Salbuespen horrek Euskal Kultura Ondarearen Erregistroan inskribatuta dauden babes bereziko zein ertaineko ondasunei eragingo die.

Era berean, salbuetsita egongo dira Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikularen 2. apartatuaren b) letran aipatzen den monumentu-multzo baten parte diren ondasun higiezinak. Salbuespen horrek Euskal Kultura Ondarearen Erregistroan inskribatuta dauden babes bereziko eta ertaineko higieziinei baino ez die eragingo.

Era berean, salbuetsita egongo dira Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9. artikularen 2. apartatuaren c) letran aipatzen den eremu arkeologiko baten barruan dauden ondasun higiezinak, hain zuzen ere babes berezi eta ertaineko kultura-ondasun deklaratuak, baldin eta, esku-hartze arkeologikoren bat egin ondoren, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak erabaki badu haietan aurkitutako hondakinak mantendu behar direla, eta ezin direla ezabatu ez lekuz aldatu.

b) Hezkuntza-itunen araubidean dauden ikastetxe pribatuak, harik eta ikastetxe itundu izaera hori galdu arte.

3. Era berean, Udalak aukeran izango du honako salbuespenak ezartzea:

a) Gizarte-jarduerak egiteko baino ez diren ondasun higiezinak, baldin eta delako salbuespen hori udalak erabaki badu eta kontuan hartuta, betiere, zer ezartzen den Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan.

b) Titulartasun publikoko osasun-zentroen titulartasunpeko ondasunak, betiere, ondasun horiek zentro horien helburu berezien betearazpenarekin zuzenean lotuta badaude

#### IV. SUBJEKTU PASIBOA

##### 5. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak hauek dira, zergadun gisa: pertsona fisikoak eta juridikoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipatutako erakundeak, eta testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenak, baldin eta zerga honen zerga-egitate den eskubide baten titular badira.

Cultural Vasco. Esta exención alcanzará tanto a los bienes de protección especial como de protección media que estén inscritos en el Registro del Patrimonio Cultural Vasco.

Igualmente estarán exentos los bienes inmuebles que formen parte de un conjunto monumental a que se refiere la letra b) del apartado 2 del artículo 9 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención sólo alcanzará a los inmuebles de protección especial y de protección media que estén inscritos en el Registro del Patrimonio Cultural Vasco.

Asimismo, estarán exentos los bienes inmuebles que se encuentren dentro de una zona arqueológica a que se refiere la letra c) del apartado 2 del artículo 9 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, declarados como bienes culturales de protección especial y media, y siempre que, tras haber sido objeto de algún tipo de intervención arqueológica, el Departamento correspondiente del Gobierno Vasco haya establecido la necesidad de mantener en los mismos los restos encontrados, sin que puedan ser eliminados ni trasladados.»

b) Los centros docentes privados acogidos al régimen de conciertos educativos, en tanto mantengan su condición de centros concertados.

3. Asimismo, el Ayuntamiento establece con carácter potestativo las siguientes exenciones:

a) Los bienes inmuebles en los que se realicen exclusivamente actividades sociales, siempre y cuando dicha exención fuera acordada por el ayuntamiento y sin perjuicio de lo dispuesto en la Norma Foral 1/2004, de 24 de febrero, del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

b) Los bienes de que sean titulares los centros sanitarios de titularidad pública, siempre que los mismos estén directamente afectados al cumplimiento de los fines específicos de los referidos centros.

#### IV. SUJETO PASIVO

##### Artículo 5.-

1. Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 34 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, así como las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio, que ostenten la titularidad del derecho que, en cada caso, sea constitutivo del hecho imponible de este Impuesto.



Emakidadun bat edo batzuk badira zergadun, emakidadun bakoitza bere kuotaren arabera izango da zergadun, eta, kuota erabakitzeko, kontuan hartuko da zer katastro-balio dagokion emandako azalerari eta zer katastro-balio dagokion emakida bakoitzari zuzenean lotutako eraikinari. Emakidadunek Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko 3/2006 Foru Arauan aipatzen diren deklarazioak egiteko betebeharra badute ere, ondasun higiezina afektatuta edo atxikita dagoen ente edo erakunde publikoak edo ondasunaren administrazio eta kudeaketaren ardura duenak emakidei buruzko informazioa eman beharko dio Ogasun eta Finantza Sailari, erregelamenduz ezartzen diren modu eta baldintzetan.

Jabea zergaduna bada emakidek ukitzen ez duten azalera dela eta, aurreko paragrafoan aipatzen den ente edo erakundeak haren ordezkotza jardungo du, eta ezingo dio zergadunari jasanarazi berak ordaindutako zerga-zorren zenbatekoa.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatu behar bada ere, subjektu pasiboak ahalmena izango du berak jasandako zerga-zama beste batzuei jasanarazteko, zuzenbide erkideko arauak jarraituz.

Udalek dagokien kuota likidoaren zatia jasanaraziko diete zergaren subjektu pasibo izan ez arren jabari publikoko ondasunak edo ondare-ondasunak kontraprestazio bidez erabiltzen dituztenei, eta azken horiek behartuta daude adierazitako kuota hori jasatera. Bada, bakoitzari jasanarazi beharreko kuota kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer katastro-balio dagokion erabilitako azalerari eta zer katastro-balio dagokion erabilera-errentari edo lagapen-hartzaile bakoitzari zuzenean lotutako eraikinari.

3. Ondasun higiezinak pro indiviso badagozkie pertsona askori, katastroko titulartasuna bakoitzari dagokion kuotaren arabera esleituko zaio erkide, kide edo partaide bakoitzari eta, hala denean, haiek guztiak osatutako erkidegoari; erkidego hori identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez adieraziko da.

Kasu horretan, zerga-kuota zatitzea eskatu ahal izango da, baina, horretarako, behar-beharrezkoa da ordaintzera behartuta dauden guztien datu pertsonalak eta helbide fiskalak ematea.

Cuando la condición de contribuyente recaiga en varios o varias concesionarias, cada uno lo será por su cuota, que se determinará en razón a la parte del valor catastral que corresponda a la superficie concedida y a la construcción directamente vinculada a cada concesión. Sin perjuicio del deber de los y las concesionarias de formalizar las declaraciones a que se refiere la Norma Foral 3/2016 del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, el ente u organismo público al que se halle afectado o adscrito el inmueble o aquel a cuyo cargo se encuentre su administración y gestión, estará obligado a suministrar al Departamento de Hacienda y Finanzas la información relativa a dichas concesiones en los términos y demás condiciones que se determinen reglamentariamente.

Cuando el o la propietaria tenga la condición de contribuyente en razón de la superficie no afectada por las concesiones, actuará como sustituto de la misma el ente u organismo público al que se refiere el párrafo anterior, el cual no podrá repercutir en el o la contribuyente el importe de la deuda tributaria satisfecha.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior será de aplicación sin perjuicio de la facultad de la o del sujeto pasivo de repercutir la carga tributaria soportada conforme a las normas de derecho común.

Los ayuntamientos repercutirán la parte de la cuota líquida del impuesto que corresponda en quienes, no reuniendo la condición de sujetos pasivos del mismo, hagan uso mediante conaprestación de sus bienes demaniales o patrimoniales, los cuales están obligados a soportar la repercusión. A tal efecto, la cuota repercutible se determinará en razón a la parte del valor catastral que corresponda a la superficie utilizada y a la construcción directamente vinculada a cada arrendatario o arrendataria, cesionario o cesionaria del derecho de uso.

3. Tratándose de bienes pro indiviso pertenecientes a una pluralidad de personas, la titularidad catastral se atribuirá a cada uno de los y las comuneros, miembros o partícipes por su respectiva cuota y, en su caso, a la comunidad constituida por todas ellas, que constará identificada con su Número de Identificación Fiscal.

En este caso, se podrá solicitar la división de la cuota tributaria, siendo indispensable aportar los datos personales y los domicilios fiscales del resto de los y las obligadas al pago.



Zerga-kuota ezingo da zatitu baldin eta zatiketaren ondorioz ateratzen diren kuotak 6 eurotik beherakoak badira.

4. Ezin izango da zergako kuota banatu, eta likidazio bakarra egingo da, irabazpidezko ondasunen sozietateko edo ondasunen foru-komunikazioko ezkontideentzat edo aurrean aipatutako edozein ondasun-araubide ekonomiko moduan hitzartu duten izatezko bikoteetako kideentzat titulartasuna bateratua denean.

#### **6. artikulua**

1. Zerga honen zerga-egitate diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada, edozein arrazoi dela eta, eskubideon xede diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, erantzukizun subsidiarioaren araubidean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 42. artikuluko 1. zenbakiko d) letran ezarritakoaren arabera.

Horretarako, notarioek informazioa eskatuko diete bertaratuei, jakiteko ea bere aurrean eskuetsiko dituzten dokumentuen bidez eskualdatzen duten higiezinak zerga hau dela eta ordaindu gabeko zorrik dagoen eta ohartaraziko diete ezen ondasunok zerga-kuota ordaintzeko erabili beharko direla.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipatutako erakundeetako partaidekide edo titularkideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak bere partaidetzari dagokiona, Higiezinaren Foru Katastroan hala inskribatuta badaude. Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da beti.

### **V. ZERGA-OINARRIA**

#### **7. artikulua**

Zerga honen zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastro-balioa izango da, zeina Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko 3/2016 Foru Arauan arautzen den.

### **VI. ZERGA-KUOTA**

#### **8. artikulua**

1. Zerga honetako kuota osoa zein den zehazteko, zerga-oinarriari karga-tasa ezartzean lortzen den emaitza hartu beharko

No podrá dividirse la cuota tributaria en aquellos supuestos que, como consecuencia de la misma resulten cuotas inferiores a 6 euros.

4. No procederá la división de la cuota del tributo y se practicará una sola liquidación, en el caso que se trate de bienes cuya titularidad sea común a los cónyuges en régimen de sociedad de gananciales o comunicación foral de bienes o a los miembros de parejas de hecho que hayan pactado como régimen económico-patrimonial cualquiera de los anteriores.

#### **Artículo 6.-**

1. En los supuestos de cambio, por cualquier causa, en la titularidad de los derechos que constituyen el hecho imponible de este impuesto, los bienes inmuebles objeto de dichos derechos quedarán afectos al pago de la totalidad de la cuota tributaria, en régimen de responsabilidad subsidiaria, en los términos previstos en la letra d) del apartado 1 del artículo 42 de la Norma Foral 2/2005 General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

A estos efectos, los notarios y notarias solicitarán información y advertirán a los y las comparecientes en los documentos que autoricen sobre las deudas pendientes por este impuesto asociadas al inmueble que se transmite, y sobre la afectación de los bienes al pago de la cuota tributaria.

2. Responden solidariamente de la cuota de este impuesto, y en proporción a sus respectivas participaciones, las y los copartícipes o cotitulares de las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 34 de la Norma Foral 2/2005 General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, si figuran inscritos como tales en el Catastro Inmobiliario Foral. De no figurar inscritos, la responsabilidad se exigirá por partes iguales en todo caso.

### **V. BASE IMPONIBLE**

#### **Artículo 7.-**

La base imponible de este impuesto estará constituida por el valor catastral de los bienes inmuebles que se regula en la Norma Foral 3/2016 del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

### **VI. CUOTA TRIBUTARIA**

#### **Artículo 8.-**

1. La cuota íntegra de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen.



da kontuan.

2. Kuota likidoa kalkulatzeko, berriz, kuota osotik kendu egin behar dira ordenantza honen 9. eta 10. artikuluetan ezarritako hobariak, halakorik aplikatzerik badago.

3. Hiri-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako karga-tasa %0,1965koa izango da.

Nolanahi ere, hiri-erabilerengatik karga-tasa bereizi hauek ezarriko dira hiri-ondasun higiezinak balioesteko katastroari buruzko arautegian zehaztutako erabileren arabera:

- Industria-erabilerarako (I) karga-tasa %0,3227koa izango da.

- Merkataritza-erabilerarako (C) karga-tasa %0,2842koa izango da.

- Gainerako erabileretarako, bizitegi-erabilerarako (V) eta beste erabilera batzuetarako (Y) izan ezik, karga-tasa %0,1673koa izango da.

- Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak direnean, gutxieneko ordezkoko karga-tasa %0,40koa izango da

Era berean, honako tasa bereizi hauek ere ezarriko zaizkie hiri-ondasun higieziari, baldin eta ondasun higiezinak balioesteko katastroari buruzko arautegian zehaztutako erabileren arabera hurrengo taulan erabilera bakoitzera adierazitako katastroko balioa gainditzen badute:

ERABILERA USOS	KATASTROKO BALIOA VALOR CATASTRAL	KARGA MOTA TIPO DE GRAVAMEN
BIZITEGIA / RESIDENCIAL (V)	400.000,00€	%0,3227

Higiezin batek erabilera bat baino gehiago badu, eraikin edo barrunbe nagusiaren erabilerari dagokion tasa aplikatuko zaio.

4. Landa-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga-tasa %0,0516koa izango da.

## VII. HOBARIAK

### NAHITAEZKO HOBARIAK

#### 9. artikulua

1. Interesdunek obra berrirako alta-adierazpenaren bidez halaxe adieraziz gero, higiezinak zergaren kuota osoaren gaineko %50eko hobarirako eskubidea izango dute obra berriko edo zaharberritu beharreko higiezinak

2. La cuota líquida se obtendrá minorando la cuota íntegra, en su caso, en el importe de las bonificaciones previstas en los artículos 9 y 10 de esta Ordenanza.

3. El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza urbana queda fijado en el 0,1965%.

No obstante, se establecen los siguientes tipos de gravamen diferenciados por usos urbanos, atendiendo a los usos establecidos en la normativa catastral para la valoración de los bienes inmuebles de naturaleza urbana:

-Para el uso de Industria (I) el tipo de gravamen queda fijado en el 0,3227%.

-Para el uso de Comercio (C) el tipo de gravamen queda fijado en el 0,2842%.

-Para el resto de usos, excepto Residencial (V) y otros usos (Y), el tipo de gravamen queda fijado en el 0,1673%.

- Para Bienes Inmuebles de Características especiales el tipo de gravamen queda fijado en el 0,40%

Asimismo, se establecen los siguientes tipos diferenciados para los bienes inmuebles de naturaleza urbana, que superen, atendiendo a los usos establecidos en la normativa catastral para la valoración de los bienes inmuebles, el valor catastral que para cada uno de los usos se recoge en el siguiente cuadro:

Cuando los inmuebles tengan atribuidos varios usos se aplicará el tipo correspondiente al uso de la edificación o dependencia principal.

4. El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza rústica, queda fijado en el 0,0516%.

## VII. BONIFICACIONES

### BONIFICACIONES OBLIGATORIAS

#### Artículo 9.-

1. Tendrán derecho a una bonificación del 50 por 100 en la cuota íntegra del impuesto, siempre que así se solicite por los y las interesadas con la declaración de alta de obra nueva, los inmuebles que constituyan el objeto de la actividad de las empresas de urbanización,



urbanizatu, eraiki eta sustatzen dituzten enpresetako jardueraren helburu direnengan, betiere, euren ibilgetuko ondasunen artean ez badaude.

Obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean aplikatu ahal izango da hobari hau, baldin eta epe horretan benetan egiten badira urbanizazio-edo eraikuntza-obrak. Nolanahi ere, epe hori ezin da hiru zergaldi baino luzeago izan.

2. Babes publikoko etxebizitzetara eta, Euskal Autonomia Erkidegoko arauen arabera, haiekin berdinetara ahal diren etxebizitzetara %50eko hobaria aplikatu ahal izango zaie zergaren kuota osoan, behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan.

3. Nekazaritzako kooperatiben eta lurren taldekako ustiapenezko kooperatiben landa-ondasunei zerga-kuota osoaren %95eko hobaria aplikatu ahal izango zaie; horretarako, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko 1997ko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauan ezarritakoa hartu behar da aintzat.

### HAUTAZKO HOBARIAK

Hurrengo artikuluan jasotako zerga-onurak ezin dira metatu, eta ezin dira aldi berean aplikatu. Hobari bat baino gehiago aplikatzeko eskatzen den kasuetan, eskatzailearentzat onuragarriena dena aplikatuko da.

Administrazioak eskubidea du hobariak onartu eta aplikatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen diren ala ez ofizioski egiaztatzeko; baita subjektu pasiboak hobarirako eskubidea duela egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentuak eskatzeko ere.

Onura fiskalari dagokion zenbatekoa ordainagiria egiten denean deskontatuko da.

### 10. artikulua

1.- Zerga-kuota osoaren % 50eko hobaria aplikatu ahal izango zaie Eusko Jaurlaritzak duen «Etxebizitza Hutsen Programa»ren edo merkatu libreko etxebizitzetara alokairurako bitartekaritzako programan edo erkidegoaren, aldundien zein udalen beste etxebizitza-programa batzuen arloan lagatzen diren ondasun higiezinari. Hobaria subjektu pasiboak eskatu beharko du. Eskariarekin batera hauek aurkeztu beharko ditu:

construcción y promoción inmobiliaria tanto de obra nueva como de rehabilitación equiparable a ésta, y no figuren entre los bienes de su inmovilizado.

El plazo de aplicación de esta bonificación comprenderá desde el periodo impositivo siguiente a aquel en que se inicien las obras hasta el posterior a la terminación de las mismas, siempre que durante ese tiempo se realicen obras de urbanización o construcción efectiva, y sin que, en ningún caso, pueda exceder de tres periodos impositivos.

2. Tendrán derecho a una bonificación del 50 por 100 en la cuota íntegra del Impuesto, durante los tres periodos impositivos siguientes al del otorgamiento de la calificación definitiva, las viviendas de protección pública y las que resulten equiparables a éstas conforme a la normativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3. Tendrán derecho a una bonificación del 95 por 100 de la cuota íntegra los bienes rústicos de las cooperativas agrarias y de explotación comunitaria de la tierra, en los términos establecidos en la Norma Foral 9/1997, de 14 de octubre, sobre Régimen Fiscal de las Cooperativas.

### BONIFICACIONES POTESTATIVAS

Los beneficios fiscales recogidos en el siguiente artículo no son acumulables ni aplicables simultáneamente. En los casos en los que se solicite aplicar más de una bonificación, se aplicará la que resulte más beneficiosa para el/la solicitante.

La Administración se reserva el derecho de comprobar de oficio el cumplimiento de los requisitos necesarios para el otorgamiento y concesión de cualquier bonificación y de requerir la presentación de cuantos documentos sean necesarios para acreditar el derecho del sujeto pasivo a la bonificación.

La cantidad correspondiente al beneficio fiscal se descontará a la hora de emitir el recibo.

### Artículo 10.-

1.-Tendrán derecho a una bonificación del 50% de la cuota íntegra los bienes inmuebles que sean objeto de cesión en programas del Gobierno Vasco en el marco del "Programa de Vivienda Vacía" o de Intermediación en el mercado de Alquiler de Vivienda libre, o de otros planes de vivienda autonómicos, forales o municipales similares. La bonificación deberá ser solicitada por la o el sujeto pasivo, quien acompañará a la solicitud la siguiente documentación:



1.- Hobariaren eskariaren idazkia, ondasun higiezina identifikatuz.

2.- "Vivienda y suelo de Euskadi, S.A.- Euskadiko Etxebizitza eta lurra, E.A." sozietate publikoarekin sinatutako kontratuaren fotokopia edota kontratu hori kudeatzen duen sozietate publikoa.

Hobari horrek ondorioak izango ditu eman eta hurrengo ekitalditik aurrera eta indarrean egongo da kontratua indarrean dagoen bitartean. Baldintzaren bat aldatuko balitz, onuradunak Udalari jakinarazi beharko lioke.

2.- Ondasun higiezinaren zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria jasotzeko eskubidea egongo da higiezin horietan eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu badira; eta gauza bera gertatuko da indarreko legeriaren arabera inbertsioa egitea beharrezkoa ez den beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamenduaren kasuan. Beste energia berriztagarritzat honako hauek hartuko dira: energia eolikoa, geotermikoa, hidroelektrikoa edo hidraulikoa, biomasa eta bioerregaiak (biodiesela eta bioetanola). Hobari hori aplikatzeko baldintza izango da beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edukitzea, eta honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Dagokion lizentzia lortu eta ordaindu izana.
- Instalazioa benetan egin izana.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 9. j) artikuluan aipatzen den hobariaren onuradun izatea.

Hobaria subjektu pasiboak eskatu beharko du, eta bertan ondasun higiezina zehaztu beharko da.

Hobariak eman eta hurrengo ekitalditik aurrera izango ditu ondorioak, eta gehienez ere 3 urterako aplikatuko da.

3.- Zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria jasotzeko eskubidea izango dute energia-efizientziaren A motako etiketa duten ondasun higiezinek.

Era berean, zergaren kuota osoaren % 30eko hobaria jasotzeko eskubidea izango dute energia-efizientziaren B motako etiketa duten ondasun higiezinek.

1.-Escrito de solicitud de la bonificación, en la que se identifique el bien inmueble.

2.-Fotocopia del contrato firmado con la Sociedad Pública "Vivienda y suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta lurra, E.A." o Sociedad Pública que gestione dicho contrato.

Dicha bonificación tendrá efectos desde el ejercicio siguiente a su concesión y se mantendrá en vigor el tiempo que permanezca vigente dicho contrato. En el caso de alguna modificación en las condiciones del mismo el beneficiario deberá comunicarlo al Ayuntamiento.

2.- Tendrán derecho a una bonificación del 50 % de la cuota íntegra del Impuesto para los bienes inmuebles en los que se hayan instalado sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía proveniente del sol y de otro tipo de energías renovables cuya inversión no sea obligatoria de acuerdo con la legislación vigente. Se considerarán como otro tipo de energías renovables las siguientes: la energía eólica, geotérmica, hidroeléctrica o hidráulica, la biomasa y los biocarburantes (biodiesel y bioetanol).

La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación por la Administración competente y deberán cumplir los requisitos siguientes:

- Haber obtenido y abonado la licencia correspondiente.
- Haber realizado efectivamente la instalación.
- Haberse beneficiado de la bonificación a que hace referencia el artículo 9. j) del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

La bonificación deberá ser solicitada por la o el sujeto pasivo, en la que deberá indicarse el bien inmueble.

La bonificación anterior tendrá efectos a partir del ejercicio siguiente a su concesión y se aplicará por un periodo máximo de 3 años.

3.- Tendrán derecho a una bonificación del 50 % de la cuota íntegra del Impuesto los bienes inmuebles que tengan una etiqueta de eficiencia energética de clase A.

También tendrán derecho a una bonificación del 30 % de la cuota íntegra del Impuesto los bienes inmuebles que tengan una etiqueta de eficiencia energética de clase B.





Kasu batean zein bestean honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Dagokion lizentzia lortu eta ordaindu izana.
- Instalazioa benetan egin izana.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 9. k) artikuluan aipatzen den hobariaren onuradun izatea.

..

Hobaria subjektu pasiboak eskatu beharko du, eta bertan ondasun higiezin zehaztu beharko da.

Aurreko hobari biek eman eta hurrengo ekitalditik aurrera izango dituzte ondorioak, eta gehienez ere 3 urterako aplikatuko dira

4.- Zergaren kuota osoaren % 90eko hobaria jasotzeko eskubidea egongo da, indarreko legeriaren arabera familia ugariaren izaera duten subjektu pasiboen ohiko etxebizitza diren higiezin kasuetan.

Atal honetan aurreikusitako hobaria emateko ezinbesteko baldintzak izango dira:

- Familia ugariko kideak etxebizitza horretan erroldatuta egotea dagokion ekitaldiko urtarilaren 1ean.

- Etxebizitzaren Gutxienezko Balio Egozgarria 300.000 eurotik gorakoa ez izatea.

- Subjektu pasiboak eta familia ugariko kideek baremo hau gainditzen ez duten baliabideak izatea batera (zerga-oinarri orokorra, guztira):

Familia ugariko kideen kopurua	Gehienezko kopurua
3	20.384,20 €
4	24.540,43 €
5	28.537,87 €
6	32.614,71 €
7	36.691,54 €
8	40.768,38 €
9	40.768,38 €
10 edo gehiago	40.768,38 €

No obstante, están obligados a comunicar las variaciones que se produzcan en las condiciones y requisitos de esta bonificación y que, en todo caso, surtirán efectos a partir del ejercicio siguiente en que se hayan producido.

La Administración se reserva el derecho de comprobar de oficio el cumplimiento de los requisitos necesarios para el otorgamiento y concesión de la bonificación y de requerir la presentación de cuantos documentos sean necesarios para acreditar el derecho del sujeto pasivo a la bonificación.

El porcentaje de bonificación, se determinará en el momento de devengo del impuesto en función de la potencia fiscal del turismo familiar, según el siguiente cuadro:

POTENCIA FISCAL	BONIFICACIÓN
Si < 12 CF	30%
Si ≥ 12 CF < 14 CF	20%
Si ≥ 14 CF y ≤ 16 CF	10%



Aurreko atalean zehaztutako hobaria emateko ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboaren eta familia ugariko gainerako kideen guztirako diru-sarrerak (Zerga Oinarriaren Guztizko Orokorra) taula honetan agertzen direnak baino handiagoak ez izatea:

La bonificación especificada en el apartado anterior, se concederá siempre y cuando el sujeto pasivo junto con los miembros componentes de la familia numerosa, dispongan de unos recursos (Total Base Imponible General) que no excedan del siguiente baremo:

<b>Familia ugariko kide kopurua</b>	<b>Gehienezko kopurua</b>
3	20.384,20 €
4	24.540,43 €
5	28.537,87 €
6	32.614,71 €
7	36.691,54 €
8	40.768,38 €
9	40.768,38 €
10 edo gehiago	40.768,38 €

<b>Nº miembros Familia numerosa</b>	<b>Cuantía máxima</b>
3	20.384,20 €
4	24.540,43 €
5	28.537,87 €
6	32.614,71 €
7	36.691,54 €
8	40.768,38 €
9	40.768,38 €
10 ó más	40.768,38 €

Familia ugariko kideren batek % 33tik gorako dibertsitate funtzionalen bat duela egiaztatzen duen ziurtagiriren bat badu, bi zenbatuko dira. Hobaria urtero eskatu beharko du subjektu pasiboak, eta eskari hori azaroaren 30a baino lehen egin beharko du.

Si alguna persona componente de la familia numerosa cuenta con un certificado de poseer alguna diversidad funcional superior al 33% computará por dos. La bonificación deberá ser solicitada anualmente por el sujeto pasivo, quién deberá presentar la solicitud antes del 30 de noviembre.

Oro har, hobaria eskatu den egunaren hurrengo ekitalditik izango ditu ondoreak, eta ezin du atzeraeragineko ondorioz izan. Hala ere, hobaria, kitapena finkoa izan aurretik eskatzen denean, eskabidearen ekitaldian bertan izango ditu ondoreak, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen badira zergaren sortzapen-egunean.

Con carácter general, el efecto de la concesión de la bonificación comienza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de solicitud y no puede tener carácter retroactivo. No obstante, cuando la bonificación se solicite antes de que la liquidación sea firme, ésta surtirá efectos en el mismo ejercicio de la solicitud, si en la fecha del devengo del tributo concurren los requisitos exigidos para su disfrute.





#### **IV.- SUBJEKTU PASIBOAK**

##### **5. artikulua**

Zerga honen subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, zirkulazio baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.

#### **V.- KUOTA**

##### **6. artikulua**

1.- Zerga hau Eranskinean agertzen den tarifa-  
taularen arabera eskatuko da.

2.- Tarifak aplikatzeko orduan Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean ezarritako kontzeptuak eta arauak hartuko dira kontuan, baita xedapen osagarriak eta osteko arauak ere.

a) Automobilek bezalaxe ordainduko dute furgoniek, furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek nahiz turismoen eratorriek (bakoitzak duen potentzia fiskalaren arabera), baldin eta 1.000 Kg. baino gutxiago eramateko baimena badute; hortik gorakoek, kamioek bezala ordainduko dute.

b) Hiru gurpileko nahiz lau ibilgailuak motoen taldean sartuko dira, eta bakoitzak duen zilindradaren arabera ordainduko dute. Lau gurpileko arinek, dena den, moto txikiek bezala ordainduko dute.

c) Ibilgailu artikulatuetan, arrasta-potentzia daramanak eta arrastatuak diren atoiak eta erdi-atoiak bakoitzak bere aldetik eta aldi berean ordainduko dute zerga.

d) Autopropulsa-tutako makinek, bide publikotik trakzio mekanikoko beste ibilgailu batek garraiatu edo arrastatu gabe ibili ahal izanez gero, traktoreen tarifa ordainduko dute.

e) Autokarabanak automobiltzat hartuko dira, eta daukaten potentzia fiskalaren arabera ordainduko dute.

f) Euren kapazitatea dela-eta matrikulatu beharrik ez duten ziklomotoreak, atoiak eta erdi-atoiak zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira Industriako Lurralde Ordezkaritzat dagokien ziurtagiria ematen dienetik gora edo, hala denean, benetan ere zirkulatzeko daudenean.

g) Nolanahi ere, tarifetako d) letran agertzen den "traktore" izen orokor horrek barne hartzen ditu bai kamioi traktoreak, bai "obra eta zerbitzuetako traktoreak".

#### **IV.SUJETOS PASIVOS**

##### **Artículo 5.**

Son sujetos pasivos de este impuesto las personas físicas o jurídicas y las Entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria, a cuyo nombre conste el vehículo en el permiso de circulación.

#### **V CUOTA.**

##### **Artículo 6**

1.- El impuesto se exigirá con arreglo al cuadro de tarifas del Anexo.

2.- Para la aplicación de las tarifas se tendrán en cuenta los conceptos y reglas establecidos en el Reglamento General de Vehículos, disposiciones complementarias y en las siguientes normas.

a) Los furgones y furgonetas, los vehículos mixtos adaptables y los derivados de turismo tributarán como turismo, según su potencia fiscal, excepto que los mismos dispongan de autorización para transportar más de 1.000 kilogramos de carga útil, en cuyo caso tributarán como camión.

b) Los vehículos de tres ruedas y cuatriciclos tendrán la consideración, a estos efectos de motocicletas y tributarán por la capacidad de su cilindrada. Los cuatriciclos ligeros, tributarán como ciclomotores.

c) Los vehículos articulados tributarán simultáneamente y por separado el que lleve la potencia de arrastre y los remolques y semirremolques arrastrados.

d) Las máquinas autopropulsadas que puedan circular por la vía pública sin ser transportadas o arrastradas por otros vehículos de tracción mecánica, tributarán por las tarifas de los tractores.

e) Las autocaravanas tributarán como turismo según su potencia fiscal.

f) En el caso de los ciclomotores, remolques y semirremolques, que por su capacidad no vengán obligados a ser matriculados, se considerarán como aptos para la circulación desde el momento que se haya expedido la certificación correspondiente por la Delegación de Industria, o en su caso, cuando realmente estén en circulación.

g) En todo caso, la rúbrica genérica de "tractores" a que se refiere la letra d) de las tarifas, comprende a los tractocamiones y a los "tractores de obras y servicios".



3.- Zaldi-potentzia fiskala zaldi fiskaletan adierazten da eta, Ibilgailuen Araudi Orokorra onesten duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikuluari jarraituz, bere V. eranskinean agindutakoa kontutan hartuta ezarriko da.

## **VI.- ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

### **7. artikulua**

1.- Zergaldia urte naturala izango da, berria erosten denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Berria erosten denean, zergaldia ibilgailua erosten den egunean bertan hasiko da, eta baja ematen zaionean, berriz, Trafikoko Buruzagitzan baja ematen zaion egunean.

2.- Zergaldiko lehen egunean sortuko da zerga.

3.- Ibilgailua berria denean edo ibilgailuari behin betiko baja ematen zaionean, ordaindu beharreko kuota zenbatekoa egutegiko hilen artean hainbanatuko da eta alta edo baja eguneko hila ere ordaindu egin beharko da.

Ibilgailua ostu dutela-eta behin-behineko baja ematen zaionean, modu berean hainbanatuko da kuota, behin-behineko baja hori erregistro publiko egokian egiten den unetik aurrera.

## **VII.- KUDEAKETA**

### **8. artikulua**

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri den egoitza zein udalerritan dagoen, udalerririk horretako udalaren eginkizunak izango dira ibilgailu horren zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta bai zerga-kudeaketan agindutako ekintzak berrikustea ere.

### **9. artikulua**

Udalak, zerga hau autolikidazio erara eskatzeko aukera izango du.

### **10. artikulua**

Zerga ordaindu izanaren frogagiria Udala Administrazioak emandako ordainagiria izango da.

3.- La potencia fiscal del vehículo expresada en caballos fiscales, se establecerá de acuerdo con lo dispuesto en el art. 11.20 del Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Vehículos, en relación con el anexo V del mismo texto.

## **VI. PERIODO IMPOSITIVO Y DEVENGO**

### **Artículo 7.**

1.- El período impositivo coincide con el año natural, salvo en el caso de primera adquisición o baja de los vehículos. En estos casos el período impositivo comenzará el día en que se produzca dicha adquisición o terminará el día en que se produzca la baja en la Jefatura de Tráfico, respectivamente.

2.- El impuesto se devenga el primer día del período impositivo

3.- El importe de la cuota del Impuesto se prorrateará por meses naturales en los casos de primera adquisición o baja definitiva del vehículo, incluido el que corresponda a la fecha en que se produzca el alta o baja.

También procederá el prorrateo de la cuota en los mismos términos en los supuestos de baja temporal por sustracción o robo del vehículo, y ello desde el momento en que se produzca dicha baja temporal en el Registro público correspondiente.

## **VII.- GESTIÓN**

### **Artículo 8.**

La gestión, liquidación, inspección y recaudación, así como la revisión de los actos dictados en vía de gestión tributaria corresponde al Ayuntamiento del domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo.

### **Artículo 9.**

El Ayuntamiento podrá exigir este impuesto en régimen de autoliquidación.

### **Artículo 10.**

Será instrumento acreditativo del pago del impuesto el recibo expedido por la Administración Municipal.



### 11. artikulua

1. Trafikoko Buruzagitzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasun-ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenek, alde aurretik frogatu beharko dute zerga hau ordainduta dutela. Salbuespen bakarra dago, hamabost urte edo gehiago dituzten ibilgailuei baja eman nahi izanez gero, ez da froga-agiririk aurkeztu beharko.

2. Gauza bera egin beharko dute ibilgailuen titularrek Trafikoko Buruzagitzari ibilgailuaren eraldaketaren berri ematen diotenean, baldin eta eraldaketa horrek zerga honen ondoretarako zerga-sailkapena aldatzea badakar; baita ibilgailuaren zirkulazio-baimena eskualdatzen bada edo bertan ageri den egoitza aldatzen bada ere.

3. Trafikoko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen bajei edo eskualdaketei buruzko espedienterik tramitatuko alde aurretik zerga hau ordainduta dagoela frogatzen ez bazaie.

Ibilgailu berri bat matrikulatzen denean edo ibilgailuari bere zerga-sailkapena aldatu duen aldaketa bat egin zaionean, interesdunek Udal Administraziora jo beharko dute matrikulazioa egin den egunetik edo aldaketa-datatik hogeita hamar egun balioduneko epearen barruan ondoren aipatzen diren agiriak aurkezteko (zergaren matrikulari eransteke):

Zirkulazio-baimena  
Ezaugarri teknikoaren ziurtagiria  
NAN edo IFK

### VIII.- XEDAPEN IRAGANKORRA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga indarrean jartzen den egunean Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergan mota bateko nahiz besteko zerga-hobariren bat dutenek hobari hori izaten jarraituko dute aipatutako zerga horri dagokionean, harik eta hobaria iraungitzen den arte edo, hobariaren onurak mugaegunik ez badu, 1992ko abenduaren 31ra arte, azken egun hori barne.

### IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honi eta berorren eranskinari 1989ko azaroaren 3an egindako Osoko Bilkuran eman zien Udalbatzak behin betiko onarpena.

### Artículo 11.

1. Quienes soliciten ante la Jefatura de Tráfico la matriculación, la certificación de aptitud para circular o la baja definitiva de un vehículo, deberán acreditar, previamente, el pago del impuesto. Se exceptúa de la referida obligación de acreditación el supuesto de las bajas definitivas de vehículos con quince o más años de antigüedad.

2. A la misma obligación estarán sujetos los titulares de los vehículos cuando comuniquen a la Jefatura de Tráfico la reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación a efectos de este impuesto, así como también en los casos de transferencia y de cambio de domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo.

3. Las Jefaturas de Tráfico no tramitarán los expedientes de baja o transferencia de vehículos si no se acredita previamente el pago del impuesto.

En caso de nueva matriculación o de modificaciones en el vehículo que alteren su clasificación a efectos tributarios, los interesados deberán presentar en la Administración Municipal, con objeto de su inclusión en la Matrícula del impuesto, dentro del plazo de treinta días hábiles desde la matriculación o modificación, los siguientes documentos:

- Permiso de circulación.
- Certificado de características técnicas.
- D.N.I. o C.I.F.

### VIII.- DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Quienes a la fecha de comienzo de aplicación del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica gocen de cualquier clase de beneficio fiscal en el Impuesto Municipal sobre Circulación, continuarán disfrutando de los mismos en el impuesto citado en primer lugar hasta la fecha de su extinción y, si no tuviera término de disfrute, hasta el 31 de diciembre de 1992, inclusive.

### IX. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza con su anexo fue aprobada definitivamente por el Pleno extraordinario del 3 de noviembre de 1989.



**ERANSKINA**

**ANEXO**

<b>Ibilgailuaren potentzia eta mota</b>	<b>Kuota</b>	<b>Potencia y clase de vehículo</b>	<b>Cuota</b>
<b>A) TURISMOAK</b>		<b>A)TURISMOS</b>	
8 zerga-zaldi baino gutxiago	30,07€	De menos de 8 caballos fiscales	30,07€
8 - 11,99 zerga-zaldi	80,61€	De 8 hasta 11,99 caballos fiscales	80,61€
12 - 13,99 zerga-zaldi	151,54€	De 12 hasta 13,99 caballos fiscales	151,54€
14 - 15,99 zerga-zaldi	190,44€	De 14 a 15,99 caballos fiscales	190,44€
16 - 19,99 zerga-zaldi	228,86€	De 16 hasta 19,99 caballos fiscales	228,86€
20 zerga-zaldi baino gehiago	280,54€	De 20 caballos fiscales en adelante	280,54€
<b>B) AUTOBUSAK</b>		<b>B) AUTOBUSES</b>	
21 plaza baino gutxiago	203,84€	De menos de 21 plazas	203,84€
21- 50 plaza	277,29€	De 21 a 50 plazas	277,29€
50 plaza baino gehiago	346,96€	De más de 50 plazas	346,96€
<b>C) KAMIOIAK</b>		<b>C) CAMIONES</b>	
1.000 Kg-tik beherako zama erabilgarria	98,41€	De menos de 1.000 Kg. De carga útil	98,41€
1.000 - 2.999 Kg bitarteko zama erabilgarria	195,20€	De 1.000 a 2.999 Kg. de carga útil	195,20€
2.999 - 9.999 Kg bitarteko zama erabilgarria	277,29€	De más de 2.999 a 9.999 Kg. de carga útil	277,29€
9.999 Kg-tik gorako zama erabilgarria	346,90€	De más de 9.999 Kg. de carga útil.	346,90€
<b>D) TRAKTOREAK</b>		<b>D) TRACTORES</b>	
16 zaldi-zerga baino gutxiago	40,89€	De menos de 16 caballos fiscales	40,89€
16 - 24,99 zerga-zaldi	65,53€	De 16 hasta 24,99 caballos fiscales	65,53€
25 zerga-zaldi baino gehiago	195,20€	De más de 25 caballos fiscales	195,20€
<b>E) TRAKZIO MEKANIKOKO ATOIAK ETA ERDIATOIAK</b>		<b>REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA</b>	
1.000 Kg-tik beherako zama erabilgarria	40,89€	De menos de 1.000 Kg. De carga útil	40,89€
1.000 - 2.999 Kg bitarteko zama erabilgarria	65,53€	De 1.000 a 2.999 Kg. de carga útil	65,53€
2.999 Kg-tik gorako zama erabilgarria	195,20€	De más de 2.999 Kg. de carga útil	195,20€
<b>F) BESTE IBILGAILU BATZUK</b>		<b>F) OTROS VEHÍCULOS</b>	
<b>Ziklomotoreak</b>		<b>Ciclomotores</b>	
125 cc arteko motozikletak (125ekoak barne)	10,93€	Motocicletas hasta 125 c.c.	10,93€
125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak (250ekoak barne)	10,93€	Motocicletas de más de 125 hasta 250 c.c.	10,93€
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak (250ekoak barne)	18,11€	Motocicletas de más de 250 hasta 500 c.c.	18,11€
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak (1.000koak barne)	37,26€	Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 c.c.	37,26€
1.000 cc-tik gorako motozikletak	76,28€	Motocicletas de más de 1000 c.c.	76,28€
	152,72€		152,72€



## **JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **I.- XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua**

Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoekin bat etorrira, Udalak honako ordenantza honen arabera eskatuko du Ekonomia Jardueren gaineko Zerga. Ordenantza honen ataletariko batean, eranskinean hain zuzen, establezimenduek Mungiako udalerrian duten kokaera fisikoaren balorazioa ageri da; baita kaleen zerrenda ere, kategoriaren arabera ordenatuta.

#### **2. artikulua**

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

### **II.- ZERGA-EGITATEA**

#### **3. artikulua**

1. Zerga egitatea Mungian jarduera bat burutzeak berak sortzen du; enpresa, lanbide edo arte arloko jardueretan aritzea, hain zuzen; lokal jakin batean egin zein ez, eta Zergaren Tarifetan zehaztuta egon zein ez.

2. Zerga honen ondoretarako, enpresa jardueratzat joko dira abeltzaintzako jarduerak, lokabeak direnean; baita meatzaritzakoak, industriakoak, merkataritzakoak eta zerbitzugintzakoak. Beraz, ez dira multzo horretan sartzen nekazaritzako jarduerak, menpeko abeltzaintza jarduerak, basogintzakoak eta arrantzakoak; eta horietatik bakar bat ere ez da zerga egitatea.

3. Aurreko zenbakian ezarri denaren ondoretarako, abeltzaintza lokabetzat joko da ondoko kasuetako batean dauden abelburu multzoen ustiapena:

- a) Jabeak ez nekazaritzarako ez basogintzarako erabiltzen ez dituen lurretan batez ere bazkatzen direnak.
- b) Landalurreko finketatik kanpoko kortan daudenak.
- c) Azienda transhumantea edo transterminantea.
- d) Haztegian bertan ekoiztu ez diren pentsuez elikatzen den azienda.

#### **4. artikulua.**

1. Jarduera bat enpresa, lanbide edo arte jardueratzat joko da hori egiten duenak bere kabuz antolatu behar ditueneko ekoizteko baliabideak eta giza baliabideak, edo bietako

## **ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONOMICAS.**

### **I. DISPOSICIONES GENERALES**

#### **Artículo 1.**

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral Reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y en la Norma Foral particular del tributo, exige el Impuesto sobre Actividades Económicas con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se pondera la situación física del establecimiento dentro del término municipal de Mungia y la relación de calles según categorías.

#### **Artículo 2.**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal

### **II. HECHO IMPONIBLE**

#### **Artículo 3.**

1. Constituye el hecho imponible del Impuesto el mero ejercicio en el Municipio de Mungia, de actividades empresariales, profesionales o artísticas, se ejerzan o no en el local determinado y se hallen o no especificadas en la Tarifas del Impuesto.

2. Se considerarán, a los efectos de este impuesto, actividades empresariales las ganaderas, cuando tengan carácter independiente, las mineras, industriales, comerciales y de servicio. No tienen, por consiguiente, tal consideración las actividades agrícolas, las ganaderas dependientes, las forestales y las pesqueras, no constituyendo hecho imponible por el Impuesto ninguna de ellas.

3. A efectos de lo previsto en el número anterior, tendrá la consideración de ganadería independiente, el conjunto de cabezas de ganado que se encuentre comprendido en algunos de los casos siguientes:

- a) Que pade o se alimente fundamentalmente en tierras que no sean explotadas agrícola o forestalmente por el dueño del ganado.
- b) El estabulado fuera de las fincas rústicas.
- b) El trashumante o trasterminante.
- d) Aquél que se alimente fundamentalmente con piensos no producidos en la finca en que se críe.

#### **Artículo 4.**

1. Se considera que una actividad se ejerce con carácter empresarial, profesional o artístico, cuando suponga la ordenación por cuenta propia de medios de producción y de recursos humanos o de uno de ambos, con la



bat, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan jarduteko.

2. Zergapeko jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

### 5. artikulua.

Zergapeko jarduerak egiten direla frogatzeko, zuzenbidean onar daitekeen edozein modu erabiliko da eta, bereziki, Merkataritzako Kodearen 3. artikuluan ezarri diren bideak.

### 6. artikulua.

Jarduera hauek ez daude zergapean:

1. Enpresen aktibo finkoan sartuta dauden ondasunen besterentzea, beti ere ondasun horiek ibilgetu moduan era egokian inbentariatuta egon direnean eskualdaketaren aurretik, urte bi baino lehenagotik; halaber, ez da zergapekoa izango saltzaileak erabiltzeko izan diren ondasun pribatuen salmenta, baldin eta goian adierazi den epean erabili baditu

2. Nork bere lanaren edo lanbide zerbitzuen ordainetan jasotzen dituen ekoizkinen salmenta.

3. Establezimenduaren apaindurarako baino ez diren gaien erakusketa. Bezeroen oparirako diren gaien erakusketa, ostera, zergapean dago.

4. Txikizkako salmenta denean, ekintza bakarra edo eragiketa soltea egitea.

## III. SALBUESPENAK

### 7. artikulua.

1. Zerga ordaindu beharretik salbuetsita egongo dira:

a) Estatu, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta toki erakundeak, eta haien erakunde autonomo administratiboak.

b) Nazioarteko itun edo hitzarmenen arabera, salbuespena aplikatu behar zaien subjektu pasiboak.

c) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturiko mutualitate eta montepioen kudeaketa-erakundeak.

d) Ikerketa-erakunde publikoak eta maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, toki erakunde edo ongintza edota herri onurako izendapena duten fundazioen funtsez osorik mantentzen direnak, eta irabazteko asmorik gabe hezkuntza-itunpean

finalidad de intervenir en la producción o distribución de bienes o servicios.

2. El contenido de las actividades gravadas se definirá en las Tarifas del Impuesto.

### Artículo 5.

El ejercicio de las actividades gravadas se probará por cualquier medio admisible en derecho y, en particular, por los contemplados en el artículo 3 del Código de Comercio.

### Artículo 6.

No constituye hecho imponible en este impuesto el ejercicio de las siguientes actividades:

1. La enajenación de bienes integrados en el activo fijo de las Empresas que hubieran figurado debidamente inventariados como tal inmovilizado con más de dos años de antelación a la fecha de transmitirse, y la venta de bienes de uso particular y privado del vendedor siempre que los hubiese utilizado durante igual período de tiempo.

2. La venta de los productos que se reciben en pago de trabajos personales o servicios profesionales.

3. La exposición de artículos con el fin exclusivo de decoración o adorno del establecimiento. Por el contrario, estará sujeta al impuesto de exposición de artículos para regalo a los clientes.

4. Cuando se trate de venta al por menor la realización de un solo acto u operación aislada.

## III. EXENCIONES

### Artículo 7.

1. Estarán exentos del impuesto:

a) El Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Territorio Histórico de Bizkaia y las Entidades locales, así como sus respectivos Organismos autónomos de carácter administrativo.

b) Los sujetos pasivos a los que les sea de aplicación, la exención en virtud de Tratados o de Convenios Internacionales.

c) Las Entidades gestoras de la Seguridad Social y de Mutualidades y Montepíos constituidos conforme a lo previsto en la legislación vigente.

d) Los organismos públicos de investigación, los establecimientos de enseñanza en todos sus grados costeados íntegramente con fondos del Estado, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Diputación Foral de Bizkaia o de las Entidades Locales o por Fundaciones declaradas benéficas o de utilidad pública, y los establecimientos de enseñanza en todos sus grados



diharduten maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, baita ikasleei liburu eta idazgaiak eskuratu edota mantenu erdiko zein barnetegiko zerbitzuak egiten dizkietenak ere, nahiz eta, salbuespen moduan, establezimenduan bertan saldu irakaskuntza tailerretako ekoizkinak, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.

e) Urritu fisiko, psikiko edo zentzumenezkoen elkarte edo fundazioak, irabazteko xederik ez dutenean, burutzen duten jarduera pedagogikoa, zientifikoa, laguntzako eta enpleguaren alorrekoa denean eta minusbaliatuen irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta babesa eskuratzeko direnean, nahiz eta helburu horietarako dituzten lantegietan ekoizten diren ekoizkinak saldu, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.

f) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

g) Beren jarduerari zerga hau garatzen den lehen bi zergaldietan jarduera hasten duten subjektu pasiboak.

Ondorio horietarako, ez da jarduera bat hasitzat joko, honako kasu hauetan:

- Lehenago betse titulartasun batekin gauzatu bada. Egoera hori, besteak beste, jarduera-adarrak batzean, zatitzean edota gehitzean gertatutzat joko da.

-Subjektu pasiboa Merkataritza Kodeko 42. artikulua araberako sozietate multzo baten parte bada; kasu honetan izan ezik: jarduera hori taldea osaten duten enpresetako batek ere aurretik garatu ez duen jarduera berri bat denean.

- Jarduera horretan, partaidetzaren %25 baino gehiago jarduera hori aurretik garatu duten enpresei baldin badagokie.

Aurreko paragrafoetan xedatutako betetzeko, kasu honetan ulertuko da jarduera bera garatzen dela: zergaren tarifetan jarduera hori talde beraren barruan sailkatuta dagoenean.

h) 2.000.000 € baino gutxiagoko eragiketabolumena duten subjektu pasiboak.

que, careciendo de ánimo de lucro, estuvieren en régimen de concierto educativo, incluso si facilitasen a sus alumnos libros o artículos de escritorio o les prestasen los servicios de media pensión o internado y aunque por excepción vendan en el mismo establecimiento los productos de los talleres dedicados a dicha enseñanza, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine, exclusivamente, a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

e) Las Asociaciones y Fundaciones de disminuidos físicos, psíquicos y sensoriales, sin ánimo de lucro, por las actividades de carácter pedagógico, científico, asistencial y de empleo que para la enseñanza, educación, rehabilitación y tutela de minusválidos realicen aunque vendan los productos de los talleres dedicados a dichos fines, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine exclusivamente a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

f) La Cruz Roja y otras Entidades asimilables que reglamentariamente se determinen.

g) Los sujetos pasivos que inicien el ejercicio de su actividad, durante los dos primeros periodos impositivos de este impuesto en que se desarrolle la misma.

A estos efectos, nos e considerará que se ha producido el inicio del ejercicio de una actividad en los siguientes casos:

- Cuando la misma se haya desarrollado anteriormente bajo otra titularidad, circunstancia ésta que se entenderá que concurre, entre otros supuestos, en los casos de fusión, escisión o aportación de ramas de actividad.

- Cuando el sujeto pasivo forme parte de un grupo de sociedades conforme al artículo 42 del Código de Comercio, salvo que se trate de una actividad nueva no desarrollada con anterioridad por ninguna de las empresas integrantes del grupo.

- Cuando se halle participada en más de un 25 por 100 por empresas que hayan desarrollado la misma actividad.

A efectos de lo dispuesto en los números anteriores, se entenderá que se desarrolla la misma actividad cuando esta esté clasificada en el mismo grupo dentro de las Tarifas del Impuesto.

h) Los sujetos pasivos que tengan un volumen de operaciones inferior a 2.000.000 de euros.



Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatiko zergadunei dagokienez, salbuespenak establezimendu iraunkorraren bidez aritzen direnak bakarrik ukituko ditu, betiere 2.000.000 € baino gutxiagoko eragiketa-bolumena badute

Edozelan ere, salbuespen hau aplikatzeko baldintza izango da subjektu pasiboak letra honetan aurreikusitako eragiketen bolumenaren eskakizuna betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka %25 baino gehiagotan parte hartuta ez egotea, arrisku-kapitaleko fondoak edo sozietateak edo Sozietateen gaineko Zergaren ekainaren 26ko 371996 Foru Arauaren 59. eta 60. artikuluek aipatutako enpresak sustatzeko sozietateak, hurrenez hurren, badira izan ezik, partaidetza azkeneko hauen xede soziala betetzearen ondorioz gertatu bada.

Letra honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzearen ondorioetarako, hurrengo arau hauek hartuko dira kontuan:

1. Eragiketen bolumena erabakitzeko, Sozietateen gaineko Zergaren ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 2. artikulua 7. atalean aurreikusitakoa hartukoda kontuan.

2. Eragiketen bolumena, Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboan edo Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatiko zergadunen kasuan, zerga hauengatik aitorpenak aurkezteko epearen zergaldia zerga honen sortzapenaren aurretiko urtean bukatu denarena izango da. Bizkaiko Lurralde Historikoaren martxoaren 10eko Zergei buruzko 272005 Foru Arau Orokorren 34. artikulua aipatzen dituen sozietate zibil eta erakundeei dagokienez, berriz, eragiketen bolumena zerga honen sortzapenaren aurretiko azkenurreko urteari dagokiona izango da. Zergaldiak urte naturala baino txikiagoko iraupena izan badu, eragiketen bolumena urtera handituko da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko, berorrek egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea sozietateen talde bateko kide denean, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluaekin bat etorriz, aurretik adierazitako kopuru horiek aipatutako talde horri dagozkion erakunde multzoarenak izango dira. Era berean, irizpide hori aplikatuko da pertsona fisiko bat, bera bakarrik edo odolezko nahiz ezkontza-ahaidetasuneko zuzeneko edo zeharkako ahaidetasun-loturaz, bigarren mailakoak barne, lotutako beste pertsona fisiko batzuekin batera,

En cuanto a los contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, la exención sólo alcanzará a los que operen mediante establecimiento permanente, siempre que tengan un volumen de operaciones inferior a 2.000.000 euros.

En todo caso será requisito para la aplicación de esta exención que los sujetos pasivos no se hallen participados directa o indirectamente en más de un 25 por 100 por empresas que no reúnan el requisito de volumen de operaciones previsto en esta letra excepto que se trate de fondos o sociedades de capital riesgo o sociedades de promoción de empresas a que se refieren los artículos 59 y 60, respectivamente, de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades, cuando la participación sea consecuencia del cumplimiento del objeto social de estas últimas.

A efectos de la aplicación de la exención prevista en esta letra, se tendrán en cuenta las siguientes reglas:

1ª. El volumen de operaciones se determinará de acuerdo con lo previsto en el apartado 7 del artículo 2 de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades.

2ª. El volumen de operaciones será, en el caso de los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o de los contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, el del período impositivo cuyo plazo de presentación de declaraciones por dichos tributos hubiese finalizado el año anterior al del devengo de este impuesto. En el caso de las sociedades civiles y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria, el volumen de operaciones será el que corresponda al penúltimo año anterior al del devengo de este impuesto. Si el período impositivo hubiera tenido una duración inferior al año natural, el volumen de operaciones se elevará al año.

3ª. Para el cálculo del volumen de operaciones del sujeto pasivo se tendrá en cuenta el conjunto de las actividades económicas ejercidas por el mismo.

Cuando la entidad forme parte de un grupo de sociedades conforme al artículo 42 del Código de Comercio, las magnitudes anteriormente indicadas se referirán al conjunto de entidades pertenecientes a dicho grupo. Igualmente se aplicará este criterio cuando una persona física por sí sola o conjuntamente con otras personas físicas unidas por vínculos de parentesco en línea directa o colateral, consanguínea o por afinidad, hasta el segundo grado inclusive, se encuentran en relación a otras entidades de las que sean socios en





Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuren batean beste entitateetako sozio direnean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko kasuak finkatutako urteko kontuen formulaziorako arauetako 1. Kapituluako 1. sekzioan biltzen direnak dira, eta horiek 1991ko abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuaren bidez onartu ziren.

4. Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatiko zergadunei dagokienez, espainiar lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakizkiokeen eragiketen bolumena hartuko da kontuan.

2. Aurreko idatz-zatiko d) eta e) letretan arautu diren onurak eskatu egin beharko dira eta, bidezkoa denean, alderdiak eskatu ondoren emango dira.

#### IV.- SUBJEKTU PASIBOAK

##### 8. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 33 artikuluan aipatzen diren pertsona fisikoak, juridikoak Entitateak, baldin eta zerga egitatea sortzen duten jardueretarikoren bat Mungiako udalerrian egiten badute.

7. artikuluko lehen idatz-zatiko a), b), c) eta f) letretan aipatutako subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu Zergaren matrikularen alta-aitorpena.

#### V. ZERGA KUOTA

##### 9. artikulua

Zerga kuota Zergaren tarifak zerga hau arautzen duen Foru Arauan eta berau osatzen eta garatzen duten xedapenetan adierazitakoaren arabera eta foru arauetan ezarritako koefizienteak eta aurreikusitako hobariak aplikatzearen ondorioz ateratzen dena izango da.

##### 10. artikulua.

Zergaren tarifak apirilaren 30eko 1/1991 Araugintzako Foru Dekretuan ezarritakoak izango dira.

##### 11. artikulua.

Tarifa horien gain aplikagarriak izango dira, hurrenez hurren, eragiketa bolumenaren araberrako haztapan-koefizientea, koefiziente bakarra eta establezimenduak udal mugartean duen kokaera fisikoaren haztapan-indizea, I, II

alguno de los casos a que se refiere el artículo 42 del Código de Comercio.

A efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, se entenderá que los casos del artículo 42 del Código de Comercio son los recogidos en la sección 1ª del Capítulo 1 de las normas para la formulación de las cuentas anuales consolidadas, aprobadas por Real Decreto 1.815/1991, de 20 de diciembre.

4ª. En el supuesto de los contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, se atenderá al volumen de operaciones imputable al conjunto de los establecimientos permanentes situados en territorio español.

2. Los beneficios regulados en las letras d) y e) del apartado anterior tendrán carácter rogado y se concederán, cuando proceda, a instancia de parte.

#### IV. SUJETOS PASIVOS

##### Artículo 8.

Son sujetos pasivos de este impuesto las personas físicas o jurídicas y las Entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria de Bizkaia siempre que realicen en el Municipio de Mungia cualquiera de las actividades que originen el hecho imponible

Los sujetos pasivos a que se refieren las letras a),b),c) y f) del apartado uno del artículo anterior no estará obligados a presentar declaración de alta en la matrícula del impuesto.

#### V. CUOTA TRIBUTARIA

##### Artículo 9.

La cuota tributaria será la resultante de aplicar las tarifas del impuesto, de acuerdo con los preceptos contenidos en la Norma Foral reguladora de este impuesto y en las disposiciones que la complementen y desarrollen y el coeficiente el índice y las bonificaciones previstas en las Normas Forales y en esta ordenanza.

##### Artículo 10.

Las Tarifas del impuesto son las contenidas en el Decreto Foral Normativo 1/1.991, de 30 de abril.

##### Artículo 11.

Sobre dichas tarifas serán de aplicación sucesiva el coeficiente de ponderación en función del volumen de operaciones, el coeficiente único y el índice que pondere la situación física del establecimiento dentro del término



eta III eranskinetan zehazten dan eran, hurrenez hurren.

## VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

### 12. artikulua.

1. Zergaldia egutegiko urtea bera izango da, salbu eta alta aitortpenak direnean, horrelakoetan jarduera hasten den egunetik egutegiko urtea amaitu artekoa izango baita; dena den, artikulua honen 3. atalean zehaztuta dagoena aplikatu ahal izango da.

2. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da, eta kuotak ezin izango dira txikitu, salbu eta alta aitortpenetan jardueraren hasierako data egutegiko urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, kuotak urtea amaitzeko falta diren egutegiko hiru hilekoak kontuan izanda proportzionalki kalkulatuko dira, jardueraren hasierarena barne.

3. Baja adierazpenetan kuotak, baja egunera arte igarotako hiru hileko kopurua kontuan izanda, proportzionalki kalkulatuko dira, kargapeko jarduera uzten den momentua barne, alta aurkezpenarekin batera gertatzen denean izan ezik, horrela bada, bajak hurrengo urteko lehenengo egunetik edukiko ditu bere ondorioak.

4. Ikuskizunak direnean eta kuotak ekintza solteetarako ezarri direnean, sortzapena ekintza bakoitza egiten denean sortuko da eta bidezko aitortpenak aurkeztu beharko dira, arauz ezarritako dagoen eran.

## VII. KUDEAKETA

### 13. artikulua.

1. Zergaren kudeaketa matrikula egiten denean hasiko da. Matrikula urtero egingo da eta zentsuen bidez osatuko da; zentsu horietan jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak eta zerga zorrak azalduko dira, eta behar denean foru errekarua ere bai. Matrikula jendearen eskura egongo da Udaletxean.

2. Subjektu pasiboek alta aitortpenak aurkeztu beharko dituzte, arau bidez ezartzen den epean; aitortpen horietan aurreko idatz-zatien adierazitakoaren arabera matrikulan sartu beharreko elementu guztiak adierazi beharko dituzte. Jarraian, eskumena duen administrazioak likidazioa egingo du; likidazioa subjektu pasiboari jakinaraziko zaio eta, horrek behar den sarrera egin beharko du.

municipal, en los términos especificados en los anexos I, II y III respectivamente

## VI. PERIODO IMPOSITIVO Y DEVENGO

### Artículo 12.

1. El período impositivo coincide con el año natural, excepto cuando se trate de declaraciones de alta, en cuyo caso abarcará desde la fecha de comienzo de la actividad hasta el final del año natural, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3 de este artículo.

2. El impuesto se devenga el primer día del período impositivo y las cuotas serán irreducibles, salvo cuando, en los casos de declaración de alta, el día de comienzo de la actividad no coincida con el año natural, en cuyo supuesto las cuotas se calcularán proporcionalmente al número de trimestres naturales que restan para finalizar el año, incluido el del comienzo del ejercicio de la actividad.

3. En los casos de declaraciones de baja, las cuotas se calcularán proporcionalmente al número de trimestres transcurridos hasta la fecha de baja, incluido aquel en el que se produzca el cese de la actividad gravada, excepto cuando este coincida con el ejercicio de la presentación del alta, en cuyo caso la baja surtirá efectos a partir del primer día del año siguiente.

4. Tratándose de espectáculos, cuando las cuotas estén establecidas por actuaciones aisladas, el devengo se produce por la realización de cada una de ellas, debiéndose presentar las correspondientes declaraciones en la forma que se establezca reglamentariamente

## VII. GESTIÓN

### Artículo 13.

1. El impuesto se gestiona a partir de la Matrícula del mismo. Dicha Matrícula se formará anualmente y estará constituida por censos comprensivos de las actividades económicas, sujetos pasivos, deudas tributarias, y, en su caso, del Recargo Foral. La Matrícula está a disposición del público en el Ayuntamiento.

2. Los sujetos pasivos estarán obligados a presentar las correspondientes declaraciones de alta, manifestando todos los elementos necesarios para su inclusión en la matrícula en los términos del apartado anterior y dentro del plazo que reglamentariamente se establezca. A continuación se practicará por la Administración competente la liquidación correspondiente, la cual se notificará al sujeto pasivo, quien deberá efectuar el ingreso que proceda.



Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketan eragina duten aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epeetan eta eran.

Hain zuzen ere, foru arau honetako 5. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespena ezin aplikatu duten subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote euren eragiketen bolumena. Orobat, eragiketen bolumenean aldaketaren bat gertatuz gero, subjektu pasiboek horren berri eman behar dute, baldin eta aldaketak ordenantza honetako 7. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespenaren aplikazioan eragina badu, edo eragiketa bolumenaren araberako haztapen-koefizientearen aplikaziorako kontuan hartu beharreko tartean zerbait aldarazten badu (hautazko eran aplikatu ahal izango da udal kuotaren arabera zerga ordaintzen duten subjektu pasiboen kasuan; eta derrigorrezkoa izango da probintziako eta estauko kuotaren arabera egiten dutenentzat).

3. Zerga ikuskalaritzaren edo alten zein berriemateen formalizazioaren emaitzako zentsuetan datuak sartzea edo haietako datuak kentzea edo aldatzea administrazio egintzat joko dira eta zentsuaren aldarazpena ekarriko dute. Matrikulan egiten den aldaketa orok, zentsuetan dauden datuak ukitzen baditu, nahitaez, aldeztu aurretik zentsu horiek modu berean aldaraztea eskatuko du.

4. Zerga hau autolikidazio araubidean eskatu ahalgo da, arau bidez ezartzen den eran.

#### **14. artikulua.**

1. Zerga kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko ahalmenak Udalarenak dira (borondatezko epealdian zein premiamendu bidez).

2. Udalaren ahalmenak dira, beren beregi, matrikula jendaurreztatzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta zerga honen alorrean zergadunari laguntza eta informazioa emateko jarduketak egitea.

3. Foru Aldundiaren egitekoak dira matrikula osatu eta artatzea, jarduera ekonomikoak kalifikatzea eta kuotak ezartzea.

Asimismo los sujetos pasivos estarán obligados a comunicar las variaciones de orden físico, económico o jurídico que se produzcan en el ejercicio de las actividades gravadas y que tengan trascendencia a efectos de este impuesto, y las formalizarán en los plazos y términos reglamentariamente determinados.

En particular, los sujetos pasivos a los que no resulte de aplicación la exención prevista en la letra h) del apartado 1 del artículo 5 de esta Norma Foral, deberán comunicar a la Administración Tributaria el volumen de operaciones. Asimismo, los sujetos pasivos deberán comunicar las variaciones que se produzcan en el volumen de operaciones cuando tal variación suponga la modificación de la aplicación o no de la exención prevista en la letra h) del apartado 1 del artículo 7 de esta ordenanza o una modificación en el tramo a considerar a efectos de la aplicación del coeficiente de ponderación previsto en función del volumen de operaciones (aplicable de manera potestativa para los sujetos pasivos que tributan por cuota municipal, obligatorio para los que tributen por cuota provincial y estatal).

3. La inclusión, exclusión o alteración de los datos contenidos en los censos, resultantes de las actuaciones de inspección tributaria o de la formalización de altas y comunicaciones, se considerarán acto administrativo, y conllevarán la modificación del censo. Cualquier modificación de la Matrícula que se refiera a datos obrantes en los censos requerirá, inexcusablemente, la previa alteración de estos últimos en el mismo sentido.

4. Este impuesto podrá exigirse en régimen de autoliquidación en los términos que reglamentariamente se establezcan.

#### **Artículo 14.**

1. Las facultades de exacción, gestión, liquidación, inspección y recaudación, tanto en período voluntario como por la vía de apremio, corresponden a este Ayuntamiento.

2. En materia de competencia, corresponde al Ayuntamiento la exposición al público de la Matrícula, resolución de recursos y reclamaciones, cobranza del impuesto, aplicación de exenciones y bonificaciones y actuaciones para la asistencia e información al contribuyente referidas a las materias de este impuesto.

3. Corresponde de forma exclusiva a la Diputación Foral la formación y conservación de la Matrícula, la calificación de las actividades económicas, y el señalamiento de las cuotas.



Hala ere, Foru Aldundiak nahiz udalek egin ditzakete egintza horien jakinarazpenak, bai eta zerga zorrak zehazteko likidazioen jakinarazpenak ere.

4. Udalaren ardura da ordainagiriak egitea, baina horrek ez du ezertan eragotziko Toki Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren 8. artikuluan azaltzen diren lankidetzak formulak erabiltzea.

Udala eta Foru Aldundia lankidetzan arituko dira zergaren matrikula osatzeko eta artatzeko; halaber, batera jardungo dute jarduera ekonomikoak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko orduan.

5. Salbuespenak onartzeko eta ezesteko, bati beharko da aldeaz aurretik Bizkaiko Foru Aldundiaren txosten teknikoa; eta gero, hartutako erabakiaren berri eman beharko zaio Aldundiari.

#### **15. artikulua.**

Jarduerak sailkatzeko eta kuotak ezartzeko egintzen aurkako errekurso eta erreklamazioak direla eta, martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 220 eta 232 bitarteko artikuluetan xedatutakoa beteko da. Bizkaiko Foru Aldundia izango da horrelako errekurso eta erreklamazioak ebazteko organo eskuduna. Errekurso edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

#### **16. artikulua.**

1. Foru Aldundiak egingo du matrikula eta Udalari igorriko dio.

2. Behin matrikula jaso eta gero, Udalak jendaurrean azalduko du hamabost egunez, ukitutako zergadunek aztertu ahal dezaten eta bidezko deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

#### **17. artikulua.**

1. Jendaurreko azalpen epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzaren ziurtagiria Foru Aldundiari igorriko zaio onetsi dezan.

2. Behin onartuta, udalek dagozkien ordainagiriak egingo dituzte; dena den, erabilgarriak izango dira Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatzen diren lankidetzak eta eskuordetze-hitzarmenak.

Sin perjuicio de ello, la notificación de estos actos puede ser practicada por los Ayuntamientos o por la Diputación Foral junto con la notificación de las liquidaciones conducentes a la determinación de las deudas tributarias.

4. Corresponde al Ayuntamiento la confección de los recibos cobratorios, sin perjuicio de las fórmulas de colaboración a que se refiere el artículo 8 de la Norma Foral 5/1989, de 30 de junio, de Haciendas Locales.

El Ayuntamiento colaborará con la Diputación Foral para la formación y conservación de la Matrícula del impuesto, así como en la calificación de actividades económicas y señalamiento de las cuotas correspondientes.

5. La concesión y denegación de exenciones requerirá, en todo caso, informe técnico previo de la Diputación Foral, con posterior traslado a esta de la resolución que se adopte.

#### **Artículo 15.**

Los recursos y reclamaciones que se interpongan contra los actos de calificación de actividades y señalamiento de cuotas se registrarán por lo dispuesto en los artículos 156 a 168 de la Norma Foral General Tributaria de Bizkaia, siendo el órgano competente para resolver tales recursos y reclamaciones la Diputación Foral de Bizkaia. La interposición de estas reclamaciones no suspenderá la ejecutoriedad de los actos.

#### **Artículo 16.**

1. La Matrícula correspondiente se confeccionará por la Diputación Foral que la remitirá a este Ayuntamiento.

2. Una vez recibida, el Ayuntamiento la expondrá al público por un plazo de quince días para que los contribuyentes afectados puedan examinarlas y formular, en su caso, las reclamaciones que consideren oportunas.

#### **Artículo 17.**

1. Concluido el plazo de exposición al público y resueltas las reclamaciones, se remitirá a la Diputación Foral la certificación del resultado de la misma para su aprobación.

2. Una vez aprobado, se confeccionarán por los Ayuntamientos los correspondientes recibos, sin perjuicio de ello, de los convenios de colaboración o delegación suscritos o que se suscriban con la Diputación Foral de Bizkaia.



## VIII- HOBARIAK

### 18. artikulua

Hobaria ezartzen da lana sortzeagatik, kasuan kasuko kuotaren %50era bitartekoa, udal kuotan zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboentzat, lantokian edo jardueraren egoitzan kontratu mugagabearekin lantaldea areagotu badute hobaria aplikatzen den zergaldiaren aurretikoan eta harekiko lotura izanez. Hobariaren portzentajeak, kontratu mugagabea duen lantaldearen batez besteko hazkundera gorabehera, hauek izango dira:

HAZKUNDEA	HOBARIA
%10ekoa edo gehiagokoa	10 %
%20ekoa edo gehiagokoa	20%
%30ekoa edo gehiagokoa	30%
%40ekoa edo gehiagokoa	40%
%50ekoa edo gehiagokoa	50%

Hobaria eragiten duen plantilla-gehikuntza osoa Mungian errolatuta dauden eta erroldan gutxienez 2 urteko antzinatasuna duten langileena bada, % 5eko hobari gehigarria aplikatuko da.

Era berean, % 5eko hobari gehigarria eman ahal izango da, baldin eta plantillaren gehikuntzaren erdia gutxienez kolektibo hauekiko batean dauden pertsonen osatzen badute:

- Desgaitasun fisiko, psikiko, sensoriala, bisuala edo mentala duten pertsonen osatzen badute, Desgaitasunari buruzko Lege Orokorra lehendik bete duten enpresentzat.

- 30 urtetik beherakoak.

- 45 urtetik gorakoak.

-Emakumeak, kontratuak sektore maskulinizatuek egiten badituzte. Atal honen ondorioetarako, sektore bat maskulinizatutzat joko da emakumeek plantilla osoan duten ordezkartza % 40tik beherakoa denean.

Horiek zenbatzeko, deskribatutako edozein kolektibotan dauden pertsonen kopuru osoa hartuko da kontuan. Pertsona bat kolektibo batean baino gehiagotan badago, behin bakarrik zenbatuko da.

Aplikaturako hobariak ez dute inoiz gaindituko dagokien kuotaren %50, eta aurreko lerroetan aipaturako hobariak aplikatzearen ondoriozko kuotari aplikatuko zaizkio.

## VIII- BONIFICACIONES

### Artículo 18.

Se establece una bonificación por creación de empleo de hasta el 50% de la cuota correspondiente, para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y que hayan incrementado el promedio de su plantilla de trabajadores con contrato indefinido en el centro de trabajo o domicilio de la actividad durante el periodo impositivo inmediato anterior al de la aplicación de la bonificación, en relación con el periodo anterior a aquél. Los porcentajes de bonificación, en función de cuál sea el incremento medio de la plantilla de trabajadores con contrato indefinido, serán:

INCREMENTO	BONIFICACIÓN
Igual o superior a 10 %	10 %
Igual o superior a 20 %	20%
Igual o superior a 30 %	30%
Igual o superior a 40%	40%
Igual o superior a 50%	50%

En el caso de que el incremento de plantilla que genera la bonificación sea toda ella de trabajadoras y trabajadores empadronados en Mungia con una antigüedad en el padrón de al menos 2 años, se aplicará una bonificación adicional de un 5%.

Así mismo, se podrá bonificar un 5% adicional si al menos la mitad del incremento de plantilla está compuesto por personas que se encuentren dentro de alguno de los siguientes colectivos:

- Personas con discapacidad física, psíquica, sensorial, visual o mental para empresas que vengán cumpliendo con anterioridad la Ley General de discapacidad.

- Menores de 30 años.

- Mayores de 45.

-Mujeres, siempre que los contratos se realicen por sectores masculinizados. A efectos de este apartado se entenderá que un sector es masculinizado cuando la representación de las mujeres sobre el total de la plantilla es inferior al 40%.

Para el cómputo, se tendrá en cuenta la suma total de personas que se encuentren dentro de cualquiera de los colectivos descritos. Si una persona se encuentra en más de un colectivo, sólo se computará una única vez.

El conjunto de bonificaciones aplicadas no superará el 50% de la cuota correspondiente y se aplicarán a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren los párrafos anteriores.



Aurreko atalean jaso diren onura fiskalak erreguzko izaera dute eta Udalarri eskaera bidez eskatu beharko zaizkio aplikatu beharreko ekitaldiaren lehenengo hiruhilekoan. Eskariarekin batera, hobaria jasotzeko eskubidea badagoela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Enplegu sorrera zenbatzeko epealdia eskaera aurkeztu baino lehenagoko ekitaldia izango da. Halaber, langile-zerrendaren batez besteko maila kalkulatzeko aldera, aintzat hartuko den epealdia konputagarria denaren aurrekoa izango da.

Hobaria jaso dezakeen enplegua langile-zerrenda batez beste mantentzetik sortzen dena izango da. Lan-kontratuek mugagabeak izan beharko dute eta langile-zerrendaren batez besteko gehikuntza ekarri beharko dute. Gehikuntza dagoela ulertuko da kontratatuaren aurreko urtean lan-kontraturik iraungi ez denean.

Hobari honen ondorioetarako, enpleguetan aldaketarik bada, subjektu pasiboek jakinarazteko betebeharra izango dute, aldaketa hori edozein delarik ere.

Kanpo geratzen dira honako hauek: konputagarria den epea hasi aurreko ekitaldian, enpresa eskatzailean zein horri lotutakoren batean zerbitzu eman duten langileei eginiko lan-kontratuak.

Ez dira aintzat hartuko eta hobari honen ondorioetatik kanpo geratuko dira enpresen ondorengotzatik edo forma juridikoa aldatzetik datozen lan-kontratuak.

Ez dira aintzat hartuko lan arloko legedia edo Gizarte Segurantzarena urratzen duten kontratazioak.

## VIII. XEDAPEN IRAGANKORRA

**Lehenengoa.** Zerga hau indarrean jartzen den egunean Merkataritza eta Industriako Jardueren Zerga Lizentzian edo Lanbide eta Arte Jardueren Zerga Lizentzian onuraren bat dutenek onura hori izango dute aurrerantzean ere lehenengo aipatu dugun zergan, harik eta onura iraungi arte edo, onurak amaiera-egunik eduki ezean, 1994ko abenduaren 31ra arte, egun hori barnean dela.

**Bigarrena.** Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren subjektu pasiboek dagokienez, 7/2003 Foru Araua indarrean jartzean bertan ezarritakoaren arabera hura ordaindu beharretik salbuetsita ez daudenek jarduera bati ekitearen ziozko hobaria, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren tarifak eta jarraibideak onetsi dituen apirilaren 30eko 1/1991

Los beneficios fiscales recogidos en los apartados anteriores, tienen carácter rogado y deberán solicitarse al Ayuntamiento dentro del primer trimestre del ejercicio al que hayan de aplicarse acompañando la documentación acreditativa del derecho a la bonificación.

El ámbito temporal para el cómputo de la generación de empleo será el ejercicio inmediatamente anterior a la fecha de presentación de la solicitud, asimismo a efectos de calcular el nivel medio de plantilla, el periodo a considerar será el año inmediatamente anterior al periodo computable.

Será empleo bonificable aquel que se genere a partir del mantenimiento medio de plantilla, debiendo las contrataciones celebrarse por tiempo indefinido y suponer un aumento medio de la plantilla, entendiéndose que existe tal aumento cuando no se hubiesen extinguido contratos de trabajo el año anterior a la contratación.

Los sujetos pasivos estarán obligados a comunicar cualquier variación que se produzca respecto a los empleos presentados a los efectos de esta bonificación.

Quedan excluidas las contrataciones realizadas a trabajadoras y trabajadores que en el ejercicio anterior al inicio del periodo computable hubiesen prestado servicios en la empresa solicitante o en la/s vinculadas/s a esta.

No se considerarán y quedan excluidas a efectos de esta bonificación las contrataciones que procedan de una sucesión de empresas o cambio de forma jurídica.

No se considerarán las contrataciones realizadas con infracción de la legislación laboral o de Seguridad Social.

## DISPOSICION TRANSITORIA

**Primera.** Quienes a la fecha de entrada en vigor de este Impuesto gocen de cualquier beneficio fiscal en la Licencia Fiscal de Actividades Comerciales e Industriales o en la Licencia Fiscal de Actividades Profesionales y de Artistas, continuarán disfrutando de las mismas en el impuesto citado en primer lugar, hasta la fecha de su extinción y, si no tuvieran término de disfrute, hasta el 31 de diciembre de 1.994, inclusive.

**Segunda.** En relación con los sujetos pasivos del Impuesto sobre Actividades Económicas respecto de los cuales, a la entrada en vigor de la Norma Foral 7/2003, no estando exentos de pago del impuesto con arreglo a lo dispuesto en la misma estuvieran aplicando las bonificaciones en la cuota por inicio de actividad anteriormente reguladas en la nota común 1ª a la sección segunda de las Tarifas aprobadas por el Decreto



Araugintzako Foru Dekretuko Tarifen bigarren ataleko 1. denentzako oharrean araupetutakoa, aplikatu badute euren kuotan, hobari hori aplikatzen jarraitu ahal izango dute, aipatutako baterako oharrean ezarritakoari lotuz, harik eta hobariaren aplikazioaldia amaitu arte.

**Hirugarrena.** 7/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie aplikatuko bertan ezarritakoa, hots, lehengo arauen arabera eraenduko dira.

**Cuarta.** Foru arau honek edo ordenantza fiskalek egindako aldaketaren bat dela zio ordainagiri bidez kobratzen diren zerga-zorren elementuetan zerbait aldatzen bada, taldeka jakinaraziko da ediktu bidez eta ez da egongo banaka jakinarazi beharrik; honek 2004. urtean soilik izango ditu ondoreak.

#### **IX. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, 1989ko azaroaren 3an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean.

Foral Normativo 1/1991, de 30 de Abril, por el que se aprueban las tarifas y la instrucción del Impuesto sobre Actividades Económicas continuarán aplicándose dicha bonificación, en los términos previstos en la citada Norma Común, hasta la finalización del correspondiente periodo de aplicación en la bonificación.

**Tercera.** A los procedimientos iniciados antes de la entrada en vigor de la Norma Foral 7/2003 no les será de aplicación la misma y se regirán por la normativa anterior.

**Cuarta.** Con efectos exclusivos para el año 2.004, las alteraciones que experimenten los elementos determinantes de las deudas tributarias de cobro periódico por recibo, como consecuencia de las modificaciones introducidas por la presente Norma Foral o por las ordenanzas fiscales, se notificarán colectivamente mediante edicto, no siendo necesaria su notificación individual.

#### **DISPOSICION FINAL**

La presente Ordenanza con sus anexos fue aprobada definitivamente por el Pleno extraordinario del 3 de noviembre de 1.989.



**I. ERANSKINA / ANEXO I**

El coeficiente de ponderación, en función del volumen de operaciones, se determinará de acuerdo con el siguiente cuadro:

Volumen de operaciones (euros)	Coeficiente
Desde 2.000.000,00 hasta 6.000.000,00 .....	1,20
Desde 6.000.000,01 hasta 10.000.000,00 .....	1,22
Desde 10.000.000,01 hasta 50.000.000,00 .....	1,24
Desde 50.000.000,01 hasta 100.000.000,00 ...	1,27
Más de 100.000.000,00 .....	1,3
Sin volumen de operaciones .....	1,25





**II. ERANSKINA**

Eragiketa bolumenaren araberako  
haztapan koefizientea aplikatuz igoera  
jasan duten kuoten igoera-koefiziente  
bakarra. 1,75

**ANEXO II**

Coeficiente único de incremento de las  
cuotas incrementadas por aplicación del  
coeficiente de ponderación en función del  
volumen de operaciones. 1,75



**III. ERANSKINA**

Hauxe da udalerriko bide publikoen sailkapena, beharrezkoa dena bertako lokalen kokapen indizea aplikatu ahal izateko:

**ANEXO III**

Clasificación de las vías públicas a los efectos de aplicación del índice de situación del local en el término municipal:



**1. KATEGORIA / CATEGORIA 1ª**

**INDIZEA INDICE**

ATELA AUZOTEGIA:

Aritz-Bidea nº 65-67-69-75-77-79-81-83-85-87-89-91-93-97-99-101-103	2
Belakozarra Kalea	2
Eneperi Kalea	2
Gazanda Bidea nº 2-4-6-8	2
Iturralde Kalea	2
Luisiene Bidea	2
Mantzorri Bidea nº 1-2-3-4	2
Meñaka Barrena Bidea nº 1-3-5	2
San Anton Bidea	2
Tejera Bidea	2
Torroto Bidea	2

BILLELA AUZOTEGIA:

Karmelo Etxegarai nº 37-39-41-43-45-47-49	2
Plentzia Bidea nº 3-5-7-9-11-13-13A-30	2
ELORDUIGOITIA KALEA Nos16-16A-16B-18	2
ELORTZA ERROTA BIDEA Nos 1-4	2
DERIO BIDEA No 39	2
KARMELO ETXEGARAI KALEA Nos 5-7-9-11-13-15-17-19-21-23-25-26 A-27-29-31 2-4-6-8-10-12-14-16-18-20-22-24-26-28-30-32-34-36	2
LAUAXETA OLERKARI KALEA Nos 20ª-20B-22-42-44-46-48-50-52-54-54A-56-56A-58-60 33-35	2

TROBIKA AUZOTEGIA:

- Aritz Bidea nº 47-49-51-53-55-57-59-61-63	2
- Bermeo Bidea nº 3-5-9-15	2
- Elorduizarra Kalea	2
- Etxatxu Kalea	2
- Etxeaurre Kalea	2
- Gazanda Bidea nº 1-3-5-7	2
- Landeta Kalea	2
- Larragane Bidea nº 2-4-6-8-10-12-14-16-18 1-3-5-7-9-11	2
- Matxin Bidea nº 2	2
- Makoaga Kale partikularra	2



- Makoaga Bidea	2
- Martintxone Bidea nº 1-2-3-4-5-7-9-11-13-15	2
- Ormaetxe Bidea nº 1-2-4-6	2
ZABALONDO AUZOTEGIA:	
- Derio Bidea nº 18-20-22-24-26-28-30-32-34-36-38-40-41-42-43-45-47-49-51-51A-53-55	2
- Erreruena Kalea	2
- Ildepontso Zarraga Kalea	2
- Laukariz Bidea nº 37-39-41	2
- Martintxu Kalea	2
- Mendiko Etxebarri Bidea nº 1-2-3-4-5	2
- Urtine Errota Bidea nº 1-3	2
BERREAGA MENDI:	
AGARREBASO	2
AKETXE	2
AMETZABIDE	2
AMETZAZPI	2
AÑIBARRI	2
ARETZALDE	2
ARRIBIAZPI	2
ARRITUGANE	2
ARTEKOETXE	2
ARTETXETA	2
ARTETXETAZPI	2
ATXABASO	2
BASOBARRI	2
BIDERDI	2
EGUZKIALDE	2
ERMITAZPI	2
ERROTAGANE	2
EUKALITARTE	2
ITURLEKU	2
LOBABIDE	2
LOBAZPI	2
LORENTZO DEUNA	2
LUKIETA	2
LUKIZOKO	2
MANDARIKE	2



MENDIBIDE Nº 1-2-3-4-5-6-7	2
NEURETXETA	2
OLAZABABIDE	2
OLETABURU	2
OLETALDE	2
SANTILLANDI	2
SAGARRALDE	2
URBEKO	2
URBIDE	2
USERGAIN	2
AITA ARRUPE ENPARANTZA Nos 1-2-3-5	2
AITA ARRUPE KALEA Nos 1-3-5-7-9-11-13-15-17	2
AITA ELORRIAGA KALEA Nos 1-2-4-5-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-25-27-29-29A	2
ANDRA MARI KALEA Nos 1-3	2
ARANA GOIRI'TAR SABIN KALEA Nos 2-4-6-8-10-12-14-16	2
ARITZ BIDEA Nos 1-2-3-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-16-17-18-19-21-23-25-27-27 <sup>a</sup>	2
BENTADES KALEA Nos 1-2-3-5-7-9-11	2
BUTROI KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-17	2
CONCORDIA-ALKARTASUNA KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-10-12-14	2
ELORDUIGOITIA KALEA No 1-3	2
ERREMENTARI No 1	2
FORUEN ENPARANTZA Nos 1-2-3	2
GARABILLA MARGOLARI KALEA Nos 9-12	2
HERRIBIDE KALEA Nos 16-18-20-22	2
ITURRIBIDE KALEA Nos 1-1A-1B-2-3-4-6-8-10-12-14	2
ITXAROPENA KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-11	2
JON XXIII ENPARANTZA Nos 1-2-3	2
LAUXETA OLERKARI KALEA Nos 1-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20	2
SAN PEDRO ENPARANTZA No 1	2



SAN PEDRO KALEA Nos 1-3-5

2

TROBIKA KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-20-22-24

2



<b>2. KATEGORIA / CATEGORIA 2ª</b>	<b>INDIZEA INDICE</b>
AITA ARRUPE KALEA Nos 4-6-8-10-12-14	1,90
AITA ELORRIAGA KALEA Nos 6-31-33-35-37	1,90
AITA ZAMEZA KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10	1,90
ARANA GOIRI'TAR SABIN KALEA Nos 1-3-5-7	1,90
ARIZPETXU KALEA Nos 1-3-5-7	1,90
ARTXINGO ITURRI BIDEA Nos 1-2-4-6-8-10-12-14	1,90
ATXURIZUBI KALEA Nos 2-4-6-8-10-12-14-16-18-20-22	1,90
ATZEKOALDETA KALEA Nos 2-4-6	1,90
AURELIANO GALARZA KALEA Nos 1-2-3-4-5	1,90
BAIONA KALEA	1,90
BEKO KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-16-18-20-22-24	1,90
BERMEO BIDEA Nos 2-4	1,90
BERTEIZ KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10	1,90
BERTEIZ ZEHAR KALEA Nos 2-4-6	1,90
DONIBANE GARAZI KALEA	1,90
ELORDUIGOITIA KALEA Nos 2-4-5-6-7-8-9-10-11-12-12ª-13-15-17-19-21-23	1,90
ERREKATXU KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-13-15-17	1,90
ERREMENTARI KALEA Nos 2-4-6	1,90
ERRIBIDE KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-14	1,90
FLORENCIO GALARZA ETXE TALDEA Nos 1-2-3-4-5	1,90
GAMIZ BIDEA Nos 4-6-8-10-12-14-16-18-20-22-24-26-28-30-32-34 5-7-9-11-13-15-17	1,90
GARABILLA MARGOLARI KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-10	1,90
GARRAGANE KALEA Nos 1-2-3-4-6-8	1,90
GASTEIZ KALEA Nos 2-4	1,90
GOIETAKO PLAZA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10	1,90
GOIZALDE ETXE TALDEA Nos 1-2-3-4-5-6	1,90



GURIDI ERESGILLE KALEA Nos 2-4-6	1,90
IBAIBIDE KALEA Nos 1-2-3-4-6	1,90
IBAIGANE KALEA Nos 2-4-6-8-10-12-14	1,90
IBARRA KALEA Nos 1-3-5	1,90
INTXAUSTI ERESGILLE KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-25	1,90
IRUÑA KALEA Nos 1-3	1,90
ITURRIBARRIONDO KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-10-12-14	1,90
ITXAROPENA KALEA Nos 10-13-15	1,90
KARMELO ETXEGARAI KALEA Nos 1-3	1,90
LANDESA ETXE TALDEA Nos 1-2-3-4	1,90
LANDETXO KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14	1,90
LARRABIZKER BIDEA	1,90
LARRABIZKER ZEHAR BIDEA	1,90
LARRETA BIDEA	1,90
LARRETA ZEHAR BIDEA	1,90
LAUAXETA OLERKARI KALEA Nos 21-23-24-25-26-27-28-29-30-31-32-33-34-36-38-40	1,90
LEHENDAKARI LEIZAOLA ENPARANTZA Nos 1-2-3-4	1,90
LORADI KALEA Nos 4-5	1,90
MASTIBARRENA KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7	1,90
MAULE KALEA	1,90
NEURKETA KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-8-10-12-14-16	1,90
OLALDE BERESIA Nos 2-4-6-8-10-12	1,90
OLALDE ETXE TALDEA Nos 1-2-3-4	1,90
OLALDE KALEA Nos 1-2-3-5-7	1,90
PALADO KALEA Nos 2-4-6-8-10-12-14 1-3-5-7-9-11-13-15	1,90
PELOTARI KALEA Nos 1-3-5	1,90
SAGARDI KALEA Nos 1-2-3	1,90





SAN CRISTOBAL KALEA Nos 1-2-3-4	1,90
SAN IGNACIO ETXE TALDEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10	1,90
TELMO ZARRA ETXE TALDEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-19-21-23-25-27-29	1,90
USANDIZAGA ERESGILLE KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-7-8-9-11-13	1,90
ZUBIAGA KALEA Nos 1-2-3-4-5-6-8-10-12	1,90



**3. KATEGORIA / CATEGORIA 3ª**

**INDIZEA INDICE**

ARITZ BIDEA Nos 20-22-24-29-31-33-35-37-39	1,80
ARNAGA ETXE TALDEA Nos 1-2-3-4-5-6	1,80
ATELA AUZOTEGIA:	
- Aritz-Bidea nº 71-73-95-105-107-109-111-113-115-117-119-121	1,80
- Gazanda Bidea nº 17	1,80
- Mantzorri Bidea nº 5-6-7-7A-7B-8-9-10-11-12-13-14	1,80
- Meñaka Barrena Bidea nº 2-4-6-7-8-9	1,80
ATXURI AUZOTEGIA:	
- Atxuri Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-22-24	1,80
- Derio Bidea nº 6-8-10-12-14-16	1,80
- Errota Bidea nº 14	1,80
- Estratza Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-9-11	1,80
- Lauaxeta Olerkari nº 43-45-47	1,80
- San Martín Bidea nº 1-2-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-20	1,80
- Uriko Errota Bidea nº 1-2-3-5-7	1,80
BASOZABAL AUZOTEGIA	
- Derio Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-17-19-21-23-25-27-29-31-33-35-37	1,80
- Gamiz Bidea nº 66	1,80
- Goikoetxe Bidea nº 1-2-3-4-5-7-9	1,80
- Kipuzti Bidea 1-3-5-7-9-11	1,80
- Laukariz Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-27-28-29-30-31-32-33-34-35-36-38-40-42-44-46-48-50-52-54-56-58-60-62-64-66-68-70	1,80
- Mitxelene Bidea nº 2	1,80
- San Lorenzo Bidea nº 1-2-3-4-5-6-8	1,80
BERMEO BIDEA Nº 1-6	1,80
BILLELA AUZOTEGIA:	
- Birleko Errota Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-16-18-20-22	1,80
- Elortza Errota Bidea nº 3-4-5-6	1,80
- Goikoetxe Kalea nº 1-3-5-7	1,80
- Karmelo Etxegarai nº 33-35-38-40-42-44-46-48-51-53-55-57-59	1,80
- Olebarrieta Bidea nº 1-2-3-4-5	1,80
- Plentzia Bidea nº 15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-24A-25-26-26A-26B-27-28-29-31-32-34-36-38-39-40-41-42-44-46-48-50-52	1,80
- Torre Bidea nº 1-3-4	1,80



- Torrontegi Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-10-12-14	1,80
ELORDUIGOITIA KALEA Nos 14-16-25-27-29-31-33	1,80
ELGUEZABAL AUZOTEGIA	
- Ametzabide nº 63ª	1,80
- Anibarri nº 1-3	1,80
- Axpe Bidea nº 2	1,80
- Bolu Bidea nº 6	1,80
- Gamiz Bidea nº 51-53-55-57-59-61-63-65-67-68-69-70-71-72-74-76-78	1,80
- Mendibide Kalea nº 8-9-10-11-12	1,80
- Mitxelene Bidea nº 1-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-20-22-24-26-28	1,80
EMERANDO AUZOTEGIA	
- Bakio Bidea nº 2-4-6-8-10-11-12-13-14-15-16-18	1,80
- Bermeo Bidea nº 55-57-59-60-61-62-63-64-65-67	1,80
- Elorriaga Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-11	1,80
- Santa Elena Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-17-19-21-23-25	1,80
GARRAKETA ETXE TALDEA Nos 1-2-3-4-5	1,80
ITURRIBALZAGA AUZOTEGIA	
- Axpe Bidea nº 1	1,80
- Bolu Bidea 1-2-4	1,80
- Iturribaltzaga Bidea 25-26-27-28-29-30-31-32-33-35-37-39-41-43-45-47	1,80
- Madalen Bidea nº 11-13-22-24	1,80
- Matíne Bidea nº 1	1,80
LARRAURI AUZOTEGIA	
- Bakio Bidea nº 1-3-5-7-9	1,80
- Bermeo Bidea nº 16-18-20-22-24-26-27-28-29-30-31-32-33-34-35-36-37-38-39-40-41-42-43-44-45-46-47-48-49-50-51-52-53-54-56-58	1,80
- Elizalde Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-27-28-29-30-32	1,80
- Markaida Bidea nº 2-4-6-8-10	1,80
- Meñaka Bidea nº 1-2-3-4-5-7-9-11-13-15-17-19-21	1,80
- Santa Marina Bidea nº 1	1,80
- Txirlone Bidea nº 1-2-4-6	1,80
- Txirro Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19	1,80
- Zumetxaga Bidea nº 3-5-6-8-10	1,80
LLONA AUZOTEGIA	
- Aritz Bidea nº 38-40-44-46	1,80



- Ateka Bidea nº 1-2-3-4-5-6-8	1,80
- Atelata Bidea nº 1-2-3-4-5-7	1,80
- Madalen Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-12-14-16-18-20	1,80
- Mostei Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10	1,80
LORADI Nos 1-2-3	1,80
MARKAIDA AUZOTEGIA	
- Aldapabaso Kalea	1,80
- Bermeo Bidea nº 25	1,80
- Elordui Kalea	1,80
- Lurbarri Kalea	1,80
- Markaida Bidea nº 1-3-5-7-9-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-28-30-32-34-36-38-40-42	1,80
- Ortuzarra Kalea	1,80
- Zumetxaga Bidea nº 1-2-4	1,80
MAUROLAS AUZOTEGIA	
- Arritugane nº 10	1,80
- Derio Bidea nº 58-60-62-64-66-68-70-72	1,80
- Janeko Etxebarri Bidea nº 1	1,80
TROBIKA AUZOTEGIA:	
- Agerregoit Bidea nº 1-2-3-4-5	1,80
- Aritz Bidea nº 15-16-28-30-32-34-36-41-43-45	1,80
- Bermeo Bidea nº 7-8-10-11-11A-12-13-14-17-19-21-23	1,80
- Gazanda Bidea nº 9-11-13-15	1,80
- Larragane Bidea nº 20-22-24	1,80
- Maitti Bidea nº 1	1,80
- Matxin Bidea nº 1-3-4-5-6-7-8	1,80
- Martintxone Bidea nº 6-8	1,80
- Plentzia Bidea nº 2-4-6-8-10-12-14	1,80
- Santa Marina Bidea nº 2-4-6-8	1,80
ZABALONDO AUZOTEGIA:	
- Derio Bidea nº 44-46-48-50-52-54-56	1,80
- Lاراudo Bidea nº 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-16	1,80
- Mendiko Etxebarri Bidea nº 6-7-8-9-10-12-13	1,80
- Urtine Errota Bidea nº 2-5	1,80



**ADMINISTRAZIO-DOKUMENTUAK  
TRAMITATZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO-  
JARDUERAK EGITEAGATIK KOBRAZEN DEN  
TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

**. Artikulua – OINARRIA ETA EDUKIA**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunei buruzkoa den ekainaren 30eko 5/89 Foru Arauak Udalarari ematen dizkion ahalmenak erabilita, Udal honek Tasa ezartzen die inork eskatuta tramitatzen diren agiriei edo Udal Administrazioaren zein Udal Agintarien eskumeneko diren espedienteak tramitatzeko, inork eskatuta, egiten diren administrazio jarduerari.

**2. artikulua.- EGITATE ZERGAGARRIA**

Zerga egitatea honako hau izango da: Udalak, inork eskatuta, edo partikularren ekintzek edo ez-egiteek zeharka eragin dituztelako, agiriak emateagatik egin behar duen tramitazio lana edo administrazio jarduerak egitea.

**3. artikulua.- SUBJEKTU PASIBOA**

Honako hauek izango dira subjektu pasiboak: kasuan kasuko agiria edo espedienteak tramitatzeko eskaria egin duten pertsona fisikoak, juridikoak eta entidadeak (Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 33 artikulua aipatzen dituenak); eta eskaria eurek egin ez arren, agiri edo espediente horren tramitazioaren onura jasotzen dutenak.

**4. artikulua.- ERANTZULEAK**

1.- Zerga betebeharren erantzule solidario izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 38.1 eta 39 artikuluek aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.

2.- Erantzule subsidarioak izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40 artikuluan agertzen diren sozitate-administradoreak eta sindikoak, kontuhartzaileak edo kiebra-likidatzaileak, lehiatzaileak, elkarteak eta erakundeak, oro har; artikulua horrek ezartzen dituen balizko kasuetan eta hedadurarekin.

**5. artikulua.- SALBUESPENAK**

Ez da salbuespenik edo hobaririk emango tasaren ordainketan.

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA  
POR EXPEDICION DE DOCUMENTOS  
ADMINISTRATIVOS Y REALIZACION DE  
ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS.**

**Artículo 1. FUNDAMENTO Y NATURALEZA**

En uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/89, de Haciendas Locales, de 30 de Junio, del Territorio Histórico de Bizkaia, este Ayuntamiento establece la Tasa por la Administración de documentos que expidan o de que entienda la Administración o las Autoridades Municipales a instancia de parte.

**Artículo 2. HECHO IMPONIBLE**

Constituye el hecho imponible, la actividad municipal desarrollada por la tramitación, a instancia de parte, o bien porque indirectamente hayan sido provocadas por las acciones u omisiones de los particulares, de toda clase de documentos que expida o de que entienda la Administración municipal o sus autoridades o la realización de actividades administrativas.

**Artículo 3. SUJETO PASIVO**

Son sujetos pasivos contribuyentes las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria que soliciten, provoquen o en cuyo interés, redunde la tramitación del documento o expediente de que se trate.

**Artículo 4. RESPONSABLES**

1.- Responderán solidariamente de las obligaciones tributarias del sujeto pasivo las personas físicas y jurídicas a que se refieren los artículos 38.1 y 39 de la Norma Foral General Tributaria.

2.- Serán responsables subsidiarios los administradores de las sociedades y los síndicos, interventores o liquidadores de quiebras, concursos, sociedades y entidades en general en los supuestos y con el alcance que señala el artículo 40 de la Norma Foral General Tributaria.

**Artículo 5. EXENCIONES**

No se concederá exención o bonificación alguna en el pago de la tasa



## 6. artikulua.- ZERGA KUOTA

1.- Zerga kuota kopuru finko bat izango da, tramitatzen den agiri edo espedientearen izaeraren arabera edo administrazio jardueren arabera. Tarifak ondoko artikuluan ezarri dira.

2.- Tarifaren kuota agiri edo espediente bakoitzaren tramitazio osoari dagokio, hasieratik azken erabakia hartu arteko tramitazioari, interesatuari erabakiaren ziurtagiria eta jakinarazpena bidaltzea barne dela.

## 7. ARTIKULUA.- PREZIOAK

Aurreko artikuluan aitaturakoari dagozkion prezioak honela daude ezarrita:

1. epigrafea-	Udal-ebazpenen gaineko egiaztagiriak	4,26 €
2. epigrafea-	Fotokopiak eta planoen kopiak:	
a)	Fotokopiak DIN-A3	0,24 €
	DIN-A4	0,20 €
b)	Planoak Paperean egindako kartografiak	4,52 €
	Paper begetalean egindako kartografiak	6,32 €
	Poliesterrean egindako kartografiak	7,23 €
	Material magnetikoan egindako kartografiak	7,23 €
	CDan egindako kartografiak	9,03 €
3. epigrafea	Dokumentuak konpultsatzea	1,37 €
4. epigrafea-	Botereen askiespena (bastanteoa)	22,60€
5. epigrafea-	Herriko gida	Dohain
6. epigrafea-	a) Arriskutsuak izan litezkeen animaliak eduki eta erabiltzeko lizentzia (ematea eta berritzea)	45,48 €
	b) Arriskutsuztat jotzen den animalia bakoitzaren erregistroa	42,36 €
	c) Txakur arriskutsuak edukitzeko lizentziak edo animalia arriskutsuen	

## Artículo 6. CUOTA TRIBUTARIA

1.- La cuota tributaria se determinará por una cantidad fija señalada según la naturaleza de los documentos o expedientes a tramitar y la realización de actividades administrativas, de acuerdo con la tarifa que contiene el artículo siguiente.

2.- La cuota de tarifa corresponde a la tramitación completa, en cada instancia, del documento o expediente de que se trate, desde su iniciación hasta su resolución final, incluida la certificación y notificación al interesado del acuerdo recaído.

## Artículo 7. TARIFA

La tarifa a que se refiere el artículo anterior se estructura en los siguientes epígrafes:

Epígrafe 1.-	Certificados de acuerdos municipales	4,26 €
Epígrafe 2.-	Fotocopias y copias de planos:	
a)	Fotocopias DIN-A3	0,24 €
	DIN-A4	0,20 €
b)	Planos Cartografía papel	4,52 €
	Cartografía vegetal	6,32 €
	Cartografía poliéster	7,23 €
	Cartografía soporte magnético	7,23 €
	Cartografía CD	9,03 €
Epígrafe 3.	Compulsa de documentos	1,37 €
Epígrafe 4.-	Bastanteo de poderes	22,60€
Epígrafe 5.	Callejero municipal	Gratuito
Epígrafe 6.-	a) Tramitación de licencia para la tenencia y conducción de animales potencialmente peligrosos (concesión y renovación).	45,48 €
	b) Registro de cada animal considerado como peligroso	42,36 €
	c) Expedición de duplicados de documentos por pérdida o extravío de licencia de tenencia	



	erregistroak galtzeagatik egiten diren duplikatuak	21,17 €		de perros peligrosos o registro de animales peligrosos	21,17 €
7. epigrafea-	a) Udaltzaingoak trafikostropuen gainean egiten dituen txostenak.	159,67€	Epígrafe 7	a) Informe sobre los accidentes de tráfico que realiza la Policía Local.	159,67€
	b) Partikularren batek eskatuta, Udaltzaingoak gai zibilen baten gainean egindako txostena.	31,93€		b) Comprobación y emisión de informe policial en asuntos de índole civil, a requerimiento de particular.	31,93 €
	c) Arma erosi edota erregulatzeagatik ematen den txartela.	26,11€		c) Emisión de tarjeta por adquisición/regularización de arma.	26,11 €
	d) Txartelaren duplikatua / Txartela aldatzea.	10,45€		d) Emisión de duplicado/modificación de tarjeta.	10,45 €
	e) Arma bat eskualdatzea.	10,45€		e) Transmisión de arma.	10,45 €
	f) Arma-txartelari behin betiko baja ematea.	10,45€		f) Baja definitiva de tarjeta de arma.	10,45 €
8. epigrafea-	Hautaketa- prozesuetan hautagai gisa parte hartzeko azterketa eskubideak		Epígrafe 8.-	Derechos de examen para participar como candidato en procesos selectivos	
	A1 Taldea	18,00 €		Grupo A1	18,00 €
	A2 taldea	14,00 €		Grupo A2	14,00 €
	C1 Taldea	10,00€		Grupo C1	10,00 €
	C2 eta E taldeak	6,00€		Grupo C2 y E	6,00 €

### 8. artikulua.- SORTZAPENA

Ordenantza honek ezarritako tasa zuzeneko diru-sarrera bidez ordainduko da.

Ematen den egiaztagiriko bakoitza agiri edo egitate bati buruzkoa izango da eta hala agertu beharko du adierazita, eta eskaria agiri edo egitate bati baino gehiagori buruzkoa denean, horietako bakoitza banan likidatuko da.

### 9. artikulua. LEGE-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Zergen arloko arau-hausteen kalifikazioari dagokion guztian, eta kasu bakoitzean horien gainetik jarri daitezkeen zigorrak zehazteari dagokionean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 77 artikuluan eta ondokoetan ezarritakoa aplikatuko da.

### Artículo 8. DEVENGO

Los derechos de esta Ordenanza serán hechos efectivos mediante ingreso directo.

Cada certificación que se expida habrá de referirse a un documento o hecho determinado y cuando la petición se refiere a varios documentos o hechos, se liquidarán por separado.

### Artículo 9. INFRACCIONES Y SANCIONES

En todo lo relativo a la calificación de infracciones tributarias, así como de las sanciones que a las mismas correspondan en cada caso, se estará a lo dispuesto en los artículos 77 y siguientes de la Norma Foral General Tributaria.



**AZKEN XEDAPENA**

Udalbatzak 1989ko azaroaren 3an egindako Osoko Bilkuran emon zitzaion behin betiko onarpena Ordenantza honi.

**DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Ordenanza fue aprobada definitivamente por el Pleno extraordinario del día 3 de Noviembre de 1.989, y modificada en Pleno ordinario de fecha 28 de octubre de 2013, entrando en vigor el día 1 de enero de 2014





## **AUTOTAXI ETA GAINERAKO AUTO ALOKATUEN LIZENTZIAGATIK KOBRATZEN DEN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **1. artikulua. OINARRIA ETA EDUKIA**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunei buruzkoa den ekainaren 30eko 5/89 Foru Arauan oinarrituta, Udal honek Autotaxi eta gainerako auto alokatuen lizentzien Tasa ezartzen du.

### **2. artikulua. ZERGA EGITATEA**

Ondokoa da Tasa honen zerga egitatea: Autotaxi eta alojerreko gainotzeko ibilgailuen lizentziei dagozkien zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea; hau da:

- Lizentzien emakida eta luzapena.
- Lizentziak eskualdatzeko baimenak ematea, hala dagokionean, eta indarreko legeriaren arabera

### **3. artikulua.- SUBJEKTU PASIBOA**

Zergadun subjektu pasibo modura, Tasa ordaintzeko betebeharra dute ondokoek; Lizentziaren emakida eta luzapena jasotzen duten pertsonak edo erakundeak; eta lizentziaren eskualdaketa baimentzen zaien pertsonak.

### **4. artikulua. ERANTZULEAK**

1.- Zerga betebeharren erantzule solidario izango dira Zergei Buruzko Foru Arau Orokorren 38.1 eta 39 artikuluek aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40. artikuluan xedatuaren arabera, ondoko hauek izango dira erantzule subsidiario: sozietateen administratzaileak eta sindikoak, kontuhartzaileak eta kiebra, lehiaketa, elkarte eta edozein entitatetako kitatzaileak.

### **5. artikulua.- ZERGA KUOTA**

Zerga-kuota zerbitzu edo jardueraren arabera adierazitako zenbateko finko batez zehaztuko da. Hau dena ondoko tarifen arabera:

Lehenengo epigrafea.

Lizentziak eman eta luzatzea	743,54 €
Bigarren epigrafea. Lizentziak eskualdatzeko baimena	

- |                                 |          |
|---------------------------------|----------|
| a) "inter vivos" eskualdatzea   | 743,54 € |
| b) "mortis causa" eskualdatzea: | 743,54 € |

## **ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR LICENCIAS DE AUTOTAXIS Y DEMÁS VEHÍCULOS DE ALQUILER**

### **Artículo 1. FUNDAMENTO Y NATURALEZA**

En uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/89, de Haciendas Locales, de 30 de Junio, del Territorio Histórico de Bizkaia, este Ayuntamiento establece la Tasa por licencias de Autotaxis y demás vehículos de alquiler.

### **Artículo 2. HECHO IMPONIBLE**

Constituye el hecho imponible de esta Tasa la prestación de los servicios y la realización de las actividades que, en relación con las licencias de Autotaxis y demás vehículos de alquiler se señalan a continuación:

- Concesión y expedición de licencias.
- Autorización para transmisión de licencias, cuando proceda su otorgamiento, con arreglo a la legislación vigente.

### **Artículo 3. SUJETO PASIVO**

Están obligados al pago de la Tasa en concepto de sujetos pasivos contribuyentes, las personas o entidades a cuyo favor se otorgue la concesión y expedición de la licencia, o en cuyo favor se autorice la transmisión de dicha licencia.

### **Artículo 4. RESPONSABLES**

1.- Responderán solidariamente de las obligaciones tributarias del sujeto pasivo las personas físicas y jurídicas a que se refieren los artículos 38.1 y 39 de la Norma Foral General Tributaria.

2.- Serán responsables subsidiarios los administradores de las sociedades y los síndicos, interventores o liquidadores de quiebras, concursos, sociedades y entidades en general en los supuestos y con el alcance que señala en artículo 40 de la Norma Foral General Tributaria.

### **Artículo 5. CUOTA TRIBUTARIA.**

La cuota tributaria se determinará por una cantidad fija señalada según la naturaleza del servicio o actividad, de acuerdo con la siguiente tarifa:

Epígrafe primero.

Concesión y expedición de licencias	743,54 €
-------------------------------------	----------

Epígrafe segundo. Autorización para la transmisión de licencias

- |                                |          |
|--------------------------------|----------|
| a) Transmisión "inter vivos"   | 743,54 € |
| b) Transmisión "mortis causa": | 743,54 € |



**6. artikulua.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.**

Ez da salbuespenik edo hobaririk emango tasaren ordainketan.

**7. artikulua.- SORTZAPENA**

1.- Tasa sortu eta zergak ordaintzeko betebeharra jaioko da bigarren artikuluaen a), b) hizkietan adierazitako kasuetan eta Udal honek lizentzia ematen eta luzatzen duen egunean edo ibilgailuaren ordezpena baimentzen duen egunean.

2.- Lizentzia hartu eta ordaindu ostean, interesdunak, arrazoituta kausak direla medio, ez erabiltzea erabakitzen duenean; idatziz eskatu ahal izango dau %80 itzultzeko; eta horretarako, ordaintzen duen egunetik gora zenbatzen hasita, 30 egun baliodun izango ditu. Atzera egitea isilbidez edo adierazita gertatzen bada, lizentzia hartu edo ordaindu gabe, edozein kasutan ere likidatutako eskubideen %20 kobratuko da.

**8. artikulua.- AITORPENA ETA DIRU-SARRERA.**

1.- Tasa honen menpeko jarduerak egitea eta zerbitzugintza alderdiak eskatuta burutuko dira.

2.- Kuota guztiak likidatuko dira zuzenean sartzeko, lizentziak edo eskuespenak eman ondoren eta eskatutako zerbitzuak gauzatu ondoren; orduan, zergadunek ordainketa egin beharko dute Zergabilketari buruzko Araudi Orokorra ezarritako epean.

**9. artikulua. LEGE-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

Zergen arloko arau-hausteen kalifikazioari dagokion guztian, eta kasu bakoitzean horigatit jarri daitezkeen zigorrak zehazteari dagokionean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 77 artikuluan eta ondokoetan ezarritakoa aplikatuko da.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau eta berorren eranskina behin betiko onartu zuen Udaltzatza 1989ko azaroaren 3an egindako Osoko Bilkuran eta, era berean, aldatu egin zan 2012ko urriaren 30eko Osoko Bilkuran. 2013ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

**Artículo 6. EXENCIONES Y BONIFICACIONES**

No se concederá exención o bonificación alguna en el pago de la Tasa.

**Artículo 7. DEVENGO**

1.- Se devenga la Tasa y nace la obligación de contribuir en los casos señalados en las letras a), y b) del artículo 2º, en la fecha que este Ayuntamiento conceda y expida la correspondiente licencia o autorice su transmisión.

2.- Cuando recogida y pagada una licencia el interesado desiste de utilizarlo por causas fundadas, podrá instar por escrito dentro del plazo de 30 días hábiles a partir de la fecha de pago, la devolución del 80% si el desistimiento se produce tácita o expresamente, sin haber recogido y pagado la licencia, se cobrará en todo caso el 20% de los derechos liquidados.

**Artículo 8. DECLARACION DE INGRESOS**

1.- La realización de las actividades y la prestación de los servicios sujetos a esta Tasa se llevarán a cabo a instancia de parte.

2.- Todas las cuotas serán objeto de liquidación para ingreso directo, una vez concedidas las licencias o autorizaciones de que se trate y realizados los servicios solicitados, procediendo los contribuyentes a su pago en el plazo establecido por el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico.

**Artículo 9. INFRACCIONES Y SANCIONES**

En todo lo relativo a la calificación de infracciones tributarias, así como de las sanciones que a las mismas correspondan en cada caso se estará a lo dispuesto en los artículos 77 y siguientes de la Norma Foral General Tributaria.

**DISPOSICIÓN FINAL**

Esta Ordenanza fue aprobada definitivamente por el Pleno extraordinario del 3 de Noviembre de 1.989, y modificada en Pleno ordinario de fecha 28 de octubre de 2013, entrando en vigor el día 1 de enero de 2014



**HIRIGINTZAKO ESPEDIENTEAK  
TRAMITATZEAGATIK KOBRATZEN DEN TASA  
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

**1. Artikulua – OINARRIA ETA EDUKIA**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunei buruzkoa den ekainaren 30eko 5/89 Foru Arauan oinarrituta, Udal honek Hirigintza Arloko Lizentzien Tasa ezartzen du.

**2. artikulua. ZERGA EGITATEA**

Ordenantza honek arautzen duen ordainarazpenaren helburua hauxe da: ekainaren 30ean onartu zen Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolamenduari buruzko 2/2006 Legean aipatzen diren eraikuntzari eta lurraren erabilerari buruzko lanek, betiere udalerrian egiten direnean, Lege horretako hirigintzako arauak betetzen dituzten egiaztatzeko edo esku hartzeko udal jarduera (teknikoa nahiz administratiboa), baita hirigintzaren alorreko ikuskapenarekin, kudeaketarekin eta planeamenduarekin zerikusia duten zerbitzuak eta beste zerbitzu tekniko batzuk ere ematea.

**3. artikulua.- SUBJEKTU PASIBOA**

1.- Zerga honen subjektu pasiboak Zergei buruzko Bizkaiko Foru Arau Orokorren 34.3 artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak edo juridikoak eta entitateak izango dira, betiere eraikuntza edo instalazio-lanak egiten dituzten eraikinen jabeak edo, hala denean, errentariak direnean; edo, zerbitzu edo jarduera horiek eskatzen dituztenak direnean edo horien onuradun edo eraginpeko.

2.- Edozein kasutan zergadunaren ordezkoiak izango dira obren eraikitzaileak eta kontratistak.

**4. artikulua.- ERANTZULEAK**

1.- Zerga betebeharren erantzule solidario izango dira Zergei Buruzko Foru Arau Orokorren 38.1 eta 39 artikuluek aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40. artikuluan xedatuaren arabera, ondoko hauek izango dira erantzule subsidiario: sozietateen administratzaileak eta sindikoak, kontuhartzaileak eta kiebra, lehiaketa, elkarte eta edozein entitatetako kitatzaileak.

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA  
POR TRAMITACION DE EXPEDIENTES EN MATERIA  
URBANÍSTICA**

**Artículo 1. FUNDAMENTO Y NATURALEZA**

En uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/89, de Haciendas Locales, de 30 de Junio, del Territorio Histórico de Bizkaia, este Ayuntamiento establece la Tasa por licencia urbanística.

**Artículo 2. HECHO IMPONIBLE**

1.- El objeto de la exacción regulada en esta ordenanza, será la actividad municipal, técnica o administrativa, de intervención o comprobación, tendente a verificar si los actos de edificación y uso del suelo a que se refiere la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, que hayan de realizarse en el termino municipal, se ajustan a las Normas Urbanísticas, de edificación y policía previstas en la citada Ley y demás disposiciones vigentes, así como la prestación de servicios relacionados con la inspección, gestión y planeamiento urbanístico y prestación de otros servicios técnicos.

**Artículo 3. SUJETO PASIVO**

1.- Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas, y las Entidades a que se refiere el artículo 34.3 de Norma Foral General Tributaria de Bizkaia, que sean propietarios o poseedores, o, en su caso, arrendatarios de los inmuebles en los que se realicen las construcciones o instalaciones o se ejecuten las obras, o que soliciten o resulten beneficiadas o afectadas por los servicios o actividades de que se trate.

2.- En todo caso tendrán la condición de sustitutos del contribuyente los constructores y contratistas de las obras.

**Artículo 4. RESPONSABLES**

1.- Responderán solidariamente de las obligaciones tributarias del sujeto pasivo, las personas físicas y jurídicas a que se refieren los artículos 38.1 y 39 de la Norma Foral General Tributaria.

2.- Serán responsables subsidiarios los administradores de las sociedades y los síndicos, interventores o liquidadores de quiebras, concursos, sociedades y entidades en general, en los supuestos y con el alcance que señala el artículo 40 de la Norma Foral General Tributaria.



**5. ARTIKULUA.- ZERGA KUOTA.**

1.- Zerga kuota zehazteko, ondoko tarifak aplikatuko dira:

a) Obra edo instalaziorako lizentzia edo exekuzio aginduak aurrekontuarekin emateagatik:

300,50 euroraino	15,67€
300,51 eurotik 1.502,53 eurora	38,50€
1.502,53 eurotik 3.005,06 eurora	78,44€
3.005,06 eurotik 6.010,12 eurora	154,06€
6.010,12 eurotik 15.025,30 eurora	385,14€
15.025,30 eurotik 30.050,60 eurora	770,28€
30.050,61 eurotik 60.101,21 eurora	1.155,30€
60.101,21 eurotik gora	1.540,49€

b) Poligonoak mugatzeagatik:

1.-25 Ha-ra bitarteko azalera dutenak	185,33€
2.- 26 Ha-tik 100 Ha-ra bitartekoak	278,22€
3.- 101 Ha-tik gorakoak	370,83€

c) Plan Partziala tramitatzeagatik.

Tramitazio-tasa 0,25 eurokoa izango da eraikitzen den metro koadroko. Horretaz aparte, ordain-sari ofizialak eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

d) Xehekapen-azterlanak tramitatzeagatik.

Tramitazio-tasa 0,14 eurokoa izango da metro koadroko. Horretaz aparte, ordain-sari ofizialak eskatzaileak ordaindu beharko ditu.

e) Lurren partzelazioak, birpartzelazioak, elkarketak, banaketak eta zatiketak tramitatzeagatik:

250 m2-ra bitartekoak, m2 bakoitzeko	1,59 €
Hortik gorako m2 bakoitzeko	0,20 €
Gutxienez	76,94 €

f) Plangintza aurrerapenagatik:

Hirigintzako emandako eraikigarritasunari eraikitako (aurrerapenean agertzen den azalera guztian)	Planean ontzat gehienezko jarraituta, m2 bakoitzeko	0,03 €
---	---	--------

g) Edozelako antolamendu plan edo aldaketak tramitatzeagatik:

**Artículo 5. CUOTA TRIBUTARIA.**

1.- La cuota tributaria se determinará por aplicación de las siguientes tarifas:

a) Concesión de licencia de obra o instalación u ordenes de ejecución con presupuesto:

Hasta 300,50 €	15,67€
De 300,51 a 1.502,53 €	38,50€
De 1.502,53 a 3.005,06 €	78,44€
De 3.005,06 a 6.010,12 €	154,06€
De 6.010,12 a 15.025,30 €	385,14€
De 15.025,30 a 30.050,60 €	770,28€
De 30.050,61 a 60.101,21 €	1.155,30€
Más de 60.101,21 €	1.540,49€

b) Servicios de delimitación de polígonos:

1.- Hasta 25 Ha. de superficie	185,33€
2.- De 26 Ha. hasta 100 Ha.	278,22€
3.- De 101 Ha. en adelante	370,83€

c) Tramitación de Plan Parcial.

Se satisfará en concepto de tasa de tramitación a razón 0,25 € por metro cuadrado construido. Independientemente, serán por cuenta de los solicitantes los honorarios oficiales que procedan.

d) Tramitación de Estudios de Detalle.

Se satisfará en concepto de tasas de tramitación a razón de 0,14 €/m<sup>2</sup>. Independientemente, serán por cuenta de los solicitantes los honorarios oficiales que procedan.

e) Tramitación de Parcelaciones, Reparcelaciones, agrupaciones, segregaciones y divisiones de fincas:

Hasta 250 m <sup>2</sup> de superficie , por cada m <sup>2</sup>	1,59 €
Cada m <sup>2</sup> de exceso, a razón de	0,20 €
Mínimo	76,94 €

f) Servicios de avance de planeamiento

Por cada m <sup>2</sup> de edificación máxima autorizada por el Plan Urbanístico concreto, en la superficie total comprendida en el avance	0,03 €
--	--------

g) Servicios de planes de ordenación de cualquier clase o sus modificaciones



Planean ontzat emandako gehienezko eraikigarritasunari jarraituta, eraikitako m2 bakoitzeko	0,03 €	Por cada m2 de edificabilidad máxima autorizada en el plan concreto	0,03 €
h) Norbaiten eskariari jarraituta, hondamen-deklarazioei buruzko txostenak tramitatzeagatik	308,15 €	h) Informe en materia de declaraciones de ruina a instancia de parte	308,15 €
i) Lizentzia baten luzapena emateagaitik edo antzeko administrazio egintza bat bideratzeagaitik, baimena eman zenean likidatutako tasaren %15 ordaindu beharko da.		i) La concesión de prórroga de una licencia o acto administrativo análogo devengará el 15 por 100 de la tasa liquidada con la concesión de la misma	
j) Udalaren jabari publikoari eragiten dioten lizentziak edo baimenak ematea (okupazioari dagozkion tasen gainera)	47,90 €	j) Concesión de licencias y permisos que incidan, o afecten al dominio público municipal (sin perjuicio de las tasas que correspondan por su ocupación).	47,90 €
k) Lehen erabilerako lizentziaren tramitazioa.		k) Tramitación de licencia de primera utilización.	
- Etxebizitzako	63,87 €	- Por vivienda	63,87 €
- Etxebizitza 2tik 6ra bitartean	111,77 €	- De 2 a 6 viviendas	111,77 €
- 7 etxebizitza 20ra bitartean	186,28 €	- De 7 a 20 viviendas	186,28 €
- 20 etxebizitzatik gora	266,11 €	- Más de 20 viviendas	266,11 €
- Gainerako lizentziak	111,77 €	- Resto de licencias	111,77 €
l) Lehen erabilerako lizentziaren tramitazioa.	63,87€	l) Tramitación de licencia de primera ocupación.	63,87€
m) Udal zerbitzuren baten aparteko gestioa behar duten ldatzizko hirigintza-kontsultak, hirigintza erregimenekoak.	31,93 €	m) Consultas urbanísticas por escrito, del régimen urbanístico, que requieran especial gestión de cualquier servicio municipal.	31,93 €
n) Bide publikotik ikus litezkeen publizitate kartelak jartzeagaitik (karteldegi bakoitzeko)		n) Licencias para la instalación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública, por cada cartelera	
- 12 m2-ra artekoak	137,89 €	- Hasta 12m2	137,89 €
- 12 m2-tik 32 m2-ra artekoak	208,92 €	- De mas de 12m2 hasta 32m2	208,92 €
- 32 m2-tik gorakoak	289,35 €	- Mas de 32m2	289,35 €
ñ) EIT espedienteetan esku-hartzea.	188,03 €	ñ) Tasa por intervención de expedientes de ITE	188,03 €
o) Hirigintza-lizentziei titulartasun aldaketak bideratzea.	43,87€	o) Por la tramitación de cambio de titularidad de licencias urbanísticas	43,87 €

2.- Udal zerbitzua alde zurretiko jakinarazpen bidez eman gero egiaztatu egiten denean, aurreko puntuan azaldutako tarifa berdina aplikatuko dira.

2.- Cuando el servicio municipal se preste mediante el procedimiento de comunicación previa y comprobación posterior, se aplicarán las mismas tarifas especificadas en el punto precedente.



3.- Baimerari uko egin edota antzeko izaera duen zerbitzuren bati uko egin edota atzera eginez gero, eskatzaileak eskatu eta eman baino lehen edota erabakia hartu ondoren, kitatu beharreko kopuruak goian adierazitakoen %50 izango dira, betiere udal jarduera hori benetan hasi egin bada.

#### **6. artikulua: LIZENTZIAK EZ EMATEA ETA IRAUNGITZEA**

1.- Eskatutako lizentziak ez badira onartzen, ezin izango dira obrak egin eta, kasua hori danean, behin-behineko eskubideengatik ordaindutako guztia itzuli egingo da. Obrak ordurako eginda badaude, Udaleko Zerbitzu Teknikoek esan beharko dute egindako lanak behera bota behar diren ala ez; dena den, dena delakoa erabagita ere eta isunak ezarrita ere, ez da batere dirurik itzuliko.

2.- Lizentziak iraungitza joko dira kasu hauetan: planoak etya memoriak aurkeztu beharre duten obren kasuan, lan horiek ez direnean hasten lizentziaren baldintzetan ezarritako epearen barruan; gauza bere gertatuko da obrak hasi eta azaldutakoa baino luzeagoa den tartean eteten direnean.

#### **Artículo 7. SORTZAPENA**

